

NAFARROAKO
ESKOLA
KONTSEILUA
CONSEJO
ESCOLAR
DE NAVARRA

Memoria

2017
2018



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación

Nafarroako Eskola
Kontseiluaren memoria
2017-2018 ikasturtea

Memoria del Consejo
Escolar de Navarra
Curso 2017-2018

**Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria / Hezkuntzako
Batzorde Nagusia, 2017-2018 Ikasturtea**

Egilea

Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua.

Kontseiluaren idazkaritza:

M^a Cruz Planchuelo Aranguren
Ana Reclusa Burgui
Oihane Valderrama Erburu

Azaleko marrazkia:

Cristian Aparicio

Lege-gordailua

DL NA 1662-2000

**Memoria del Consejo Escolar de Navarra / Junta Superior de
Educación, curso 2017-2018**

Autor

Consejo Escolar de Navarra / Junta Superior de Educación.
Departamento de Educación. Gobierno de Navarra.

Secretaría del Consejo:

M^a Cruz Planchuelo Aranguren
Ana Reclusa Burgui
Oihane Valderrama Erburu

Ilustración de la portada:

Cristian Aparicio

Depósito Legal

DL NA 1662-2000

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Araubide juridikoa	5
1.1. Araubide juridikoa	5
1.2. Eskola Kontseiluaren lanak	6
2. Eskola Kontseiluaren osaera	8
2.1. Osoko bilkura	8
2.2. Batzorde iraunkorra.....	10
2.3. Lan batzordeak	10
3. Osoko bilkuraren saioak	12
4. Batzorde iraunkorraren saioak	17
5. Txostenak	22
5.1. Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostena, 2016-2017 ikasturtea	22
5.2. “Landa eremuko eskola” Monografia	27
5.3. “Berrikuntza proiektuak 2016-2017” Monografia.....	30
5.4. “Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman. Faktore sozioekonomikoen eta kulturalen eragina” Monografia.....	34
5.5. “Hezkuntza eta espazioa 2018” Monografia	36
6. Irizpenak	43
7. Lan egitasmoaren garapena	46
8. Eskola Kontseilua sarean.....	65
9. Estatuko Eskola Kontseilua.....	69
10. Presentzia erakundeetan	73
11. Eskola Kontseiluaren argitalpenak	83
12. Memoria ekonomikoa.....	87
I. Eranskina: Eskola Kontseiluaren atari digitaleko berriak	90
II. Eranskina: Eskola Kontseiluaren berriak.....	94

ÍNDICE

Introducción	97
1. Régimen jurídico	99
1.1. Régimen jurídico	99
1.2. Tareas del Consejo Escolar	100
2. Composición del Consejo Escolar.....	102
2.1. Pleno	102
2.2. Comisión Permanente.....	104
2.3. Comisiones de Trabajo	104
3. Sesiones del Pleno	106
4. Sesiones de la Comisión Permanente	111
5. Informes.....	116
5.1. Informe sobre el sistema educativo en Navarra, curso 2016-2017	116
5.2. Monografía “Escuela Rural”	121
5.3. Monografía “Proyectos de innovación 2016-2017”	124
5.4. Monografía “La participación de las familias en el sistema educativo de Navarra. Influencia de los factores socioeconómicos y culturales”	129
5.5. Monografía “Educación y espacio 2018”	130
6. Dictámenes.....	137
7. Desarrollo del plan de trabajo	140
8. El Consejo en la red.....	160
9. Consejo Escolar del Estado	165
10. Presencia institucional	168
11. Publicaciones del Consejo Escolar	179
12. Memoria económica.....	183
Anexo I. Noticias del portal digital del Consejo Escolar.....	186
Anexo II. Noticias referidas al Consejo Escolar.....	190

→ **Aurkibidea**

Sarrera

Nafarroako Eskola Kontseiluaren eginkizunetako bat urteko jardueren memoria lantzea da. Dokumentuak, aurreko jarraibideak segituz, era zehatzean informatzen du 2017-2018 ikasturtean egindako jarduerari buruz. Horrela, Osoko Bilkuran edo Batzorde iraunkorren hartutako erabakiak eta egindako Txostenak edo Irizpenak komunikatzen dira, beste hezkuntza eragile eta erakundeekin harremanak, Estatuko Eskola Kontseiluko elkarlana edo egindako hedatze ekintzak.

Kontseiluak garatzen duen lana ezinezkoa litzateke osatzen duten kideen borondatezko lanik gabe. Beraiek dira erakundearen bizkarrezurra. Derrigorrezkoa da, beraz, egindako ekarpenak aitortzea.

Baliagarria egingo zaizuelakoan.

2018ko irailaren 26an

Aitor Etxarte Berezibar

Azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bitartez arautu ziren Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta tokiko kontseiluak (NAO, 1997ko azaroaren 12koa). Foru lege horren 11.1 artikulua ondokoa dio:

"Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak hurrengoak prestatuko ditu ikasturtero: bere jardueren memoria eta Nafarroako hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txostena".

Legeak ezarritakoarekin bat, Nafarroako Eskola Kontseiluak 2017-2018 ikasturteari dagokion memoria aurkeztu du (2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra). Bertan azaldu dira hezkuntza arloko kontsultako eta parte-hartzeko erakunde horren urteko lan egitasmoa, burututako jarduerak eta 2017-2018 ikasturtean onetsitako irizpenen testu osoa.

2018ko irailaren 26an egindako osoko bilkuran onetsi zen, aho batez. Ondoko pertsonak hartu zuten parte saio hartan:

Aitor Etxarte Berezibar
Antonio Iriarte Moncayola
Javier Albizu Sanz
M^a José Anaut Couso
Miren Aranoa Astigarraga
Pedro Baile Torrea
Cristina Bayona Sáez
Aurora Bernal Martínez de Soria
Jairo Císcar Ruiz
Ander Domblás García
Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara
Juan Luis García Martín
Alfredo Hoyuelos Planillo
Ignacio Iráizoz Zubeldía
Jorge Lanchas Rivero
Karmele Marañón Chasco
Eduardo Mayor García
Iosu Mena Sarasola
Josu Repáraz Leiza
Mikel Rodríguez Aguirreche
Benoît Julien Charles Rosso
Arantxa Ruiz Vidorreta
Laura Sanzol Olleta
Ignacio Toni Echeverría

1. Araubide juridikoa

1.1. Araubide juridikoa

Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa. 27.5 artikulua: "Botere publikoek bermatzen dute gizabanako guztien hezkuntza eskubidea, hezkuntzari buruzko programazio orokorraren bidez, sektore interesdun guztien parte-hartze eragingarriarekin eta ikastetxeak sortuz".

8/1995 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzaren Eskubidea arautzen duena. 34. artikulua: "Autonomia erkidego bakoitzaren lurralde esparrurako Eskola Kontseilu bat izanen da. Kontseilu horren osaera eta eginkizunak arautuko ditu kasuan kasuko autonomia erkidegoko biltzarreko legeak. Irakaskuntza programazioaren ondorioetarako, lege horrek bermatuko du, edozein kasutan, ukitutako sektoreen partaidetza egokia".

1070/1990 Errege Dekretua, abuztuaren 31koa, irakaskuntza ez-unibertsitarioko eginkizun eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzen dituen (EAO, 1990eko irailaren 1ekoa).

12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen (NAO, 1997ko azaroaren 12koa).

356/1998 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Nafarroako Eskola Kontseiluaren edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren Antolakuntza eta Funtzionamendurako Arautegia onesten duena (NAO, 1999ko urtarrilaren 20koa).

Erabakia, Nafarroako Eskola Kontseiluko Osoko bilkurak 1999ko otsailaren 16an hartua, Batzorde iraunkorrari zenbait eskumen eskuordetzen dizkiona.

Erabakia, Nafarroako Eskola Kontseiluko Osoko bilkurak 2004ko ekainaren 28an hartua, Batzorde iraunkorrari eskuordetzen diona Lanbide Heziketako Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluen curriculumak antolatzen dituzten foru dekretuetarako egitasmoen tramitazioarako aginduzko txostenak prestatzea.

Erabakia, Nafarroako Eskola Kontseiluko Osoko bilkurak 2004ko ekainaren 28an hartua, Batzorde iraunkorrari eskuordetzen diona Hezkuntza Departamentuaren eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmen edo erabakien gainean iritzia emateko eginkizuna, hezkuntzako zerbitzu publikoa ematearekin zerikusia duten jardueretan.

19/2012 Foru Legea, abenduaren 4koa, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duena (NAO, 2012ko abenduaren 17koa).

Ikasturte honetan zehar Nafarroako Eskola Kontseiluari buruzko ondoko erabakiak hartu ditu Nafarroako Gobernuak:

Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2017ko irailaren 13an hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2017ko irailaren 25eko NAO).

Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2017ko irailaren 27an hartua, Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko Idazkaria berritzen duena (2017ko urriaren 17ko NAO).

Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2017ko azaroaren 22an hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2018ko urtarrilaren 18ko NAO).

Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2018ko urtarrilaren 24an hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2018ko otsailaren 9ko NAO).

Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2018ko urtarrilaren 31n hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2018ko otsailaren 9ko NAO).

Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2018ko apirilaren 25ean hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2018ko ekainaren 7ko NAO).

Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2018ko apirilaren 25ean hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2018ko ekainaren 7ko NAO).

1.2. Eskola Kontseiluaren lanak

1.2.1. Aginduzko lanak

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia hezkuntza komunitatearen parte-hartze organo gorena da unibertsitatez kanpoko Nafarroako ikasketen plangintzari dagokionez. Bertan, hezkuntzarekin zerikusia duten sektore nagusiak daude ordezkatuta.

Eskola Kontseiluaren eginkizunik garrantzitsuena da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko duten arauen egitasmoak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea, eta adostutako zuzenketak Hezkuntza Departamentuari proposatzea. Halaber, hezkuntzako alderdi esanguratsuen gaineko azterlanak eta txostenak prestatzen ditu, Estatuko Eskola Kontseiluan parte-hartzen du eta beste zernahi egiten du; Kontseiluaren web orrian jasota dago hori guztia.

Zehazki:

Hezkuntza Departamentuak igortzen dizkion agiriak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, irakaskuntzaren programazio orokorreko alderdien gainean lege ezinbestekoak diren irizpenak prestatzeko. Agiri hauek ondoko hauei buruzkoak dira:

- Hezkuntzarekin loturiko gaiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko arautegi exekutibo orokorren egitasmoak edo foru legeentzako aurreproiektuak.
- Planifikazio orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak, ikastetxeen sorrera, al-daketa, kentzea eta lurralde banaketari dagokienez.
- Ikastetxeen eta ikastetxeetako langile eta ekipamenduen ezaugarriei buruzko araudi orokorra.
- Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen eta diruz lagunduen finantzaketari buruzko irizpide orokorrak.
- Hizkuntza ereduen ezaugarriei eta ezarpenari buruzko xedapen orokorrak.
- Bekei eta ikasketetarako laguntzei buruzko printzipio orokorrak.
- Eskolaz kanpoko jardueri eta zerbitzu osagarriei buruzko araudi orokorra.
- Hezkuntza gaitan Estatuarekin edo beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzak hitzarmenak edo akordioak egiteko egitasmoak.
- Hezkuntzaren kalitatea hobetzea edo desberdintasun sozial eta indibidualak konpentsatzea helburu duten xedapenak.

Txostenak egitea Hezkuntza Departamentuak eskatutako gaien gainean.

Urtero txosten bat prestatzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren egoerari buruz.

Urtero Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueren memoria prestatzea.

Parte-hartzea Estatuko Eskola Kontseiluaren Osoko bilkuraren eta erkidegoetako Eskola Kontseiluen Parte-hartze Batzordearen saioetan.

1.2.2. Aginduzkoak ez diren lanak

Bere ekimenez ikerketak eta proposamenak egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako bestelako gaiei buruz, eta goragokoei igortzea.

Idea aldizkaria prestatzea eta kaleratzea.

Hezkuntzan gaurkotasuna duten gaien inguruko jardunaldiak antolatzea.

Jardunaldiekin erlazionatutako argitalpen monografikoak lantzea eta editatzea.

Eskola Kontseiluen topaketen jardunaldiak antolatzea.

2. Eskola Kontseiluaren osaera

Nafarroako Eskola Kontseiluaren kide anitzeko erakundeak honakoak dira:

2.1. Osoko bilkura

Lehendakaria: Aitor Etxarte Berezibar (2015eko irailaren 3ko Nafarroako Gobernuko Erabakia, NAO 2015-9-10).

Idazkaria: Antonio Iriarte Moncayola (2017ko irailaren 27ko Nafarroako Gobernuko Erabakia, NAO 2017-10-17). 2017ko urriaren 17a arte Iñigo Arrizubieta Balerdi Nafarroako Eskola Kontseiluko idazkaria izan zen.

Sektoreen ordezkari diren kontseilukideen zerrenda:

Titularra	Antolakundea	Gobernuaren Erabakia
Hezkuntza administrazioa		
Ander Domblás García		2016-09-07 (NAO 16-09-16)
Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara		2015-9-23 (NAO 15-10-19)
Esther Monterrubio Ariznabarreta/ Aitor Lacasta Zubero		2015-9-23 (NAO 19-10-15) / 2018-01-31 (NAO 18-02-09)
Nekane Oroz Bretón		2016-09-07 (NAO 16-09-16)
Roberto Pérez Elorza		2016-09-07 (NAO 16-09-16)
Ikastetxe publikoetako irakasleak		
M ^a Soledad Garjón López	AFAPNA	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Nora Salbotx Alegria	LAB	2017-01-18 (NAO 17-02-03)
Amaia Zubieta Garciandía	STEILAS	2016-02-24 (NAO 16-03-04)
Ikastetxe pribatuetako irakasleak		
Fernando Barainca Lagos	FSIE-SEPNA	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
Carmela Muñoz Ventura	FETE-UGT	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Ikastetxeetako zuzendariak		
Camino Bueno Zamarbide/ Iosu Mena Sarasola	Ikastetxe publikoak (ADI)	2015-12-02 (NAO 15-12-21) / 2018-04-25 (NAO 18-06-07)
Jesús María Ezponda Iradier	Itundutako ikastetxe pribatuak	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularrak		
Ignacio María Iraizoz Zubeldía	ANEG-FERE	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Jorge Lanchas Rivero	ANEG-FERE	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Josu Repáraz Leiza	NIE-FNI	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Unibertsitateak		
Cristina Bayona Sáez	NUP-UPNA	2015-10-28 (NAO 15-11-16)

Aurora Bernal Martínez de Soria	UNA	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
Nafarroako Parlamentua		
Miren Aranoa Astigarraga	EH BILDU	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
M ^a Luisa de Simón Caballero	APF de Izquierda-Ezkerra	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
Ordezkaritzarik handieneko enpresa elkartea		
Francisco José Flores Pérez/ Benôit Julien Charles Rosso	CEN	2015-10-28 (NAO 15-11-16) / 2017-11-22 (NAO 18-01-18)
Ordezkaritzarik handieneko sindikatua		
M ^a José Anaut Couso	UGT	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Ikastetxeetako AZLak		
Lourdes Larunbe Arretxe	LAB	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
Ikasleen guraso elkarten federazioak		
Santiago Álvarez Folgueras	HERRIKOA	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Pedro Baile Torrea	CONCAPA	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Juan Luis García Martín	HERRIKOA	2017-05-31 (NAO 17-11-15)
Ernesto Delás Villanueva/ Sergio Iribarren Galbete	SORTZEN-IKASBATUAZ	2015-10-28 (NAO 15-11-16) 2018-04-25 (NAO 18-06-07)
Sergio Gómez Salvador/ Eduardo Mayor García	CONCAPA	2015-10-28 (NAO 15-11-16) / 2017-09-13 (NAO 18-06-07)
Nafarroako toki entitateak		
Javier Albizu Sanz	Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Karmele Marañoñ Chasco	Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa	2016-12-14 (NAO 16-12-27)
Desgaitasuna duten pertsonak		
Ignacio Toni Echeverría	CERMIN	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteak		
Sonia Cabrero del Amo (2017-12-17tik bete gabe)	Nafarroan genero berdinta- sunaren alde lan egiten duten emakume elkarteak	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
Izen handiko pertsona		
Alfredo Hoyuelos Planillo	Haur Eskolak	2015-9-23 (NAO 15-10-19)
Ikasleak		
Jairo Císcar Ruiz	Ikastetxe publikoak	2018-01-24 (NAO 18-02-09)
(2017-09-04tik bete gabe)	Itundutako ikastetxe pribatuak	

2.2. Batzorde iraunkorra

Lehendakaria: Aitor Etxarte Berezibar

Idazkaria: Iñigo Arrizubieta Balerdi, Antonio Iriarte Moncayolak ordezkaturata

Kideak:

- Pedro M^a Baile Torrea
- Fernando Barainca Lagos
- Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara
- Juan Luis García Martín
- Jorge Lanchas Rivero
- Nora Salbotx Alegría
- Amaia Zubieta Garciandía

2.3. Lan batzordeak

2017-2018 ikasturterako lan batzordeen osaera ondokoa izan da:

1. Batzordea (Irizpenak)

Javier Albizu Sanz

Jesús M^a Ezponda Iradier

José Luis García Martín

Jorge Lanchas Rivero

Roberto Pérez Elorza

Amaia Zubieta Garciandía

2. Batzordea (Memoria- NHST 2. Kapituluak)

M^a José Anaut Couso

Pedro M^a Baile Torrea

Aurora Bernal Martínez de Soria

Sonia Cabrero del Amo (baja 17-12-17tik)

Ander Domblás García

M^a Soledad Garjón López

Iñaki Iraizoz Zubeldía

Lourdes Larunbe Arretxe

3. Batzordea (NHST 3. Kapituluak)

Javier Albizu Sanz

Ernesto Delás Villanueva, Sergio Iribarren Galbetek ordezkaturata

Francisco José Flores Pérez, Benoît Julien Charles Rossok ordezkaturata

Sergio Gómez Salvador, Eduardo Mayor Garciak ordezkaturata

Carmela Muñoz Ventura

Nekane Oroz Breton

Josu Repáraz Leiza

Nora Salbotx Alegria

Ignacio Toni Echeverría

4. Batzordea (NEK antolamendua; NHST 4. kapitulua)

Santiago Álvarez Folgueras

Iñigo Arrizubieta Balerdi, Antonio Iriarte Moncayolak ordezkatua

Fernando Barainca Lagos

Cristina Bayona Sáez

Camino Bueno Zamarbide, Iosu Mena Sarasolak ordezkatua

Marisa de Simón Caballero

Aitor Etxarte Berezibar

Jesús M^a Ezponda Iradier

Esther Monterrubio Ariznabarreta, Aitor Lacasta Zuberok ordezkatua

5. Batzordea (NHST 5. kapitulua)

Santiago Álvarez Folgueras

Miren Aranoa Astigarraga

Pedro M^a Baile Torrea

Fernando Barainca Lagos

Camino Bueno Zamarbide, Iosu Mena Sarasolak ordezkatua

Sonia Cabrero del Amo (baja 17-12-17tik)

Ander Domblás García

Aitor Etxarte Berezibar

Jesús M^a Ezponda Iradier

M^a Soledad Garjón López

Jorge Lanchas Rivero

Nekane Oroz Bretón

Roberto Pérez Elorza

Amaia Zubieta Garciandía

3. Osoko bilkuraren saioak

Osoko bilkura 8 aldiz bildu da. Saio bakoitzaren aktak Nafarroako Eskola Kontseiluaren atari digitalean ikus daitezke. Landutako gaiak eta hartutako erabakiak ondoko hauek dira:

2017ko irailaren 27an

2017ko ekainaren 28ko saioaren akta onetsi da.

Lehendakariak Osoko bilkurako zenbait kideen ordezkapenak jakinarazi ditu baita Batzorde iraunkorrekoak ere.

Lehendakariak Kontseiluaren gai orokorren berri eman du.

Lehendakariak 2017-2018 ikasturteko lan egitasmoaren azalpena eman du. Lan egitasmoa onetsi da.

2016-2017 ikasturteko Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostenaren (NHST) egoeraren berri eman du lehendakariak.

2017-2018 ikasturteko aurrekontuaren aurreproiektua onetsi da.

Lehendakariak Nafarroako Landa eremuko eskolen Txostena aurkeztu du, paperean argitaratzeko azken zuzenketak falta dira.

2016-2017 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren memoria aurkeztu du.

Osoko bilkurako kide kop.	Bertaratutakoak	Bertaratutakoen %a
34	21	%61,76

25 de octubre de 2017

2017ko irailaren 27ko saioaren akta onetsi da.

15/2017 Irizpenari buruzko azalpenak emateko Eneko Ardaiz Ganuzari luzatutako gonbidapenaren berri eman du lehendakariak.

Lehendakariak jakinarazi du “Landa eremuko eskola” monografiaren aurkezpena 2017ko urriaren 18an egin zela. Ale bana helarazi da Nafarroako ikastetxe guztietara, unibertsitateetara eta hezkuntzarekin harremana duten bestelako erakundeetara.

Lehendakariak azaldu du udazkeneko jardunaldiak hasi direla eta bertan 8 berrikuntza proiektu aurkeztuko direla. Lehendakariak eskerrak ematen dizkie Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalari baita Eskola Kontseiluko kide den Ignacio Toni Echeverriari ere, jardunaldi hauek burutzeko emandako laguntzagatik.

Lehendakariak jakinarazi du “Hezkuntza eta espazioa” gai nagusi izango duten Udaberriko Jardunaldiak prestatzeko bilerak hasi direla.

2016-2017 ikasturteko Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostenaren (NHST) egoeraren berri eman du lehendakariak.

2016-2017 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren memoria onetsi da aho batez.

14/2017 Irizpena onetsi da. Abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindua aldatzen duen Foru Aginduaren proiektuaren gainekoa; haren bidez, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz, Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzeta hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezarri ziren. Irizpena onetsi da: aldeko 14 boto, aurkako 2 boto eta 3 abstentzio. Amaia Zubieta, Alfredo Hoyuelos eta Ander Domblásen zuzenketak jaso dira. Javier Albizu Sanzek boto partikularra aurkeztu du.

15/2017 Irizpena onetsi da. Eskola-garraioaren zerbitzuaren antolaketa eta haren funtzionamendua, eta eskola-jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen Foru Aginduaren gainekoa. Irizpena onetsi da: aldeko 20 boto eta abstentzio 1. Alfredo Hoyuelosek zuzenketak aurkeztu ditu.

16/2017 Irizpena onetsi da. Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituen martxoaren 26ko Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Irizpena onetsi da: aldeko 14 boto eta aurkako 2 boto. Alfredo Hoyuelosek zuzenketak aurkeztu ditu.

Osoko bilkurako kide kopurua	Bertaratutakoak	Bertaratutakoen %a
34	23	%67,65

2017ko abenduaren 20an

2017ko urriaren 25eko saioaren akta onetsi da.

Lehendakariak Kontseiluko kide berriak aurkeztu ditu: Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria den Jairo Císcar Ruiz jauna; eta Benoît Julien Charles Rosso jauna, orain arte Enpresarien elkartearen ordezkaria izan den Francisco José Flores Pérez jaunaren ordezkaria. Bestalde, batzordekideei jakinarazi die Sonia Cabrero del Amo andrea eta Esther Monterrubio Ariznabarreta andrea Eskola Kontseiluko kide izateari utziko diotela.

Planetarioarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren berri eman du lehendakariak.

Idea aldizkari digitalaren hurrengo alearen edukiaren berri eman du lehendakariak. Monografia paperean laster argitaratuko da.

2018ko martxoaren 5, 6, 7 eta 8an burutuko diren udaberriko Jardunaldiak prestatzeko bileren berri eman du lehendakariak.

17/2017 Irizpena onetsi da. Nafarroako Foru Komunitatean Pertsona Helduen Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duen Foru Aginduaren Proiektuaren gainekoa. Irizpena onetsi da: aldeko 19 boto eta aurkako boto 1.

18/2017 Irizpena onetsi da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatzeko, hurrengo mailara pasatzeko eta titulazioa lortzeko arauak ematen dituen urtarilaren 20ko 4/2017 Foru Agindua aldatzen duen Foru Aginduaren Proiektuaren gainekoa. Irizpena onetsi da: aldeko 20 boto.

19/2017 Irizpena onetsi da. Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duen apirilaren 19ko 50/2017 Foru Agindua aldatzen duen Foru Aginduaren Proiektuaren gainekoa. Irizpena onetsi da: aldeko 20 boto.

NHST testuaren zuzenketen gaineko eztabaida eta bozketa. Bertaratutako kideek aho batez onetsi dute testua.

Lehendakariak Eskola Kontseiluaren 2017ko 2. seihilekoko kontuak aurkeztu ditu. Bertaratutakoen baiespenez onetsi da.

Osoko bilkurako kide kopurua	Bertaratutakoak	Bertaratutakoen %a
33	22	%66,67

2018ko urtarrilaren 31n

2017ko abenduaren 20ko saioaren akta onetsi da.

Lehendakariak hartu du hitza zenbait gai azaltzeko: Estatuko Autonomia-erkidegoetako Eskola Kontseiluen Partaidetzarako Batzarraren bilkura, “Berrikuntza proiektuak 2016-2017” monografiaren aurkezpena, hurrengo Jardunaldien programaren aurkezpena.

Lehendakariak jakinarazi du Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostena, ikasturteko oroitidazkia, azken bi monografiak eta azken bi Idea aldizkariak jasotzen dituen USB memoria txartelen banaketa egingo dela.

“Berrikuntza proiektuak 2016-2017” argitalpenaren aurkezpena 2018ko otsailaren 1ean egingo da.

Hezkuntza eta espazioari buruzko Jardunaldien prestaketaren azken txanpan gaudela azaldu du lehendakariak.

Lehendakariak jakinarazi du NHSTren Batzordeak eta Araudiaren Batzordeak lanari ekin diotela berriz ere.

Nekane Oroz Bretón Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendari Nagusiak hartu du hitza ezohiko Osoko bilkura eskatzeko, ikastetxe berri baten sorrera onartzeko: “Iparralde” DBHI.

Ezohiko Osoko bilkura eta NHSTren Batzordearen bilkura egun berean burutzea adostu da.

Jairo Císcarrek hartu du hitza ikasleen ordezkariekin eta irakaskuntza publikoko eta itunpeko ordezkariekin lan talde bat osatzeko duen intentzioa azaltzeko. Pedro María Bailek itunpekoak ez diren ikastetxe pribatuen parte-hartzea ere eskatu du.

Osoko bilkurako kide kopurua	Bertaratutakoak	Bertaratutakoen %a
34	21	%61,76

2018ko otsailaren 21ean

2018ko urtarrilaren 31ko saioaren akta onetsi da.

Nekane Oroz Bretón Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendari Nagusiak “Iparralde” DBHI berria sortzeko arrazoiak azaldu ditu. Zonaldeko eskolatzeko beharren aurreikuspenaren arabera, egungo institutua ez da nahikoa etorkizuneko beharrak asetzeko.

1/2018 Irizpena onetsi da. Iruñeko “Iparralde” Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuaren sorrera arautzen duen Nafarroako Gobernuaren Akordioaren gainekoa. Irizpena onetsi da: aldeko 17 boto, 0 aurkako eta 0 abstentzio.

Osoko bilkurako kide kopurua	Bertaratutakoak	Bertaratutakoen %a
34	21	%61,76

2018ko martxoaren 27an

2018ko otsailaren 21eko saioaren akta onetsi da.

Lehendakariak hartu du hitza zenbait gai azaltzeko: Ikas Komunitateen Sarearen I. Topaketara bertaratzea, Corellako Arte Eskolako ikasleekin saioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoan bilera Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko Soziologia Aplikatuko Graduako arduradunekin.

Autonomia-erkidegoetako Eskola Kontseiluen Parte-hartze Batzordearen saioa izan zela jakinarazi du lehendakariak. Xedea, hezkuntzaren aldeko Ituna egiteko hobekuntza proposamenak onartzeko prozedura zehaztea zen.

XXI. Jardunaldien garapenaren berri eman da. Idea aldizkariaren 49. alea prest dago eta atari digitalera igoko da laster.

Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostena berrikusi eta hobetzeko Batzordearen saioaren berri eman du lehendakariak. Txostena osatzen duten datuen gabezien artean, tokiko entitateek hezkuntza arloan egiten dituzten jardueren informazioa eta Osasun Departamentuaren hezkuntza arloko datuak daude.

Osoko bilkurako kide kopurua	Bertaratutakoak	Bertaratutakoen %a
34	13	%38,24

2018ko maiatzaren 2an

- 2018ko martxoaren 27ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak hartu du hitza zenbait gaien berri emateko: Osoko bilkuraren azken saiotik burututako jarduerak, Idea 49. aldizkariaren argitalpena, CERMINekin eta Hezkuntza Departamentuarekin batera antolatutako hizkera argia eta irakurketa errazari buruzko prestakuntza jardunaldietara bertaratzea.
- Aurkeztutako zuzenketak onetsi ondoren, bertaratutakoek aho batez onetsi dute Musikako goi mailako ikasketa artistikoen sarbidea, matrikulazioa eta iraunkortasuna arautzen duen 2/2018 Irizpena.
- Lehendakariak azaldu ditu Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostenaren hobekuntzarako aurkeztutako proposamenak.
- Pilar Mayo Falquek, Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atalburuak, "Skolae, berdin bidean – creciendo en igualdad" proiektuari buruzko azalpenak eman ditu.

Osoko bilkurako kide kopurua	Bertaratutakoak	Bertaratutakoen %a
34	21	%61,76

2018ko ekainaren 27an

- 2018ko maiatzaren 2ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak jakinarazi du Marta Román Rivas andreak hitzaldia eskaini duela Nafarroako Parlamentuan. Hizlariarekin batera Mendigoiti eta Bernart Etxepare ikastetxeetara bisitaldia egingo da.
- Lehendakariak jakinarazi du "Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman (II. zatia) monografiaren aurkezpena maiatzaren 28an izan zela. Ekainaren 25ean "Hezkuntza eta espazioa 2018" monografiaren aurkezpena izan zen.
- Parte-hartze Autonomikoaren Batzordearen maiatzaren 3ko saioaren berri eman du lehendakariak: Estatuko Eskola Kontseiluko lehendakariak hezkuntza-itunaren txostenaren lanekin ez jarraitzea erabaki du.
- 6/2018 Irizpena onetsi da. Nafarroako Foru Komunitatean Araubide bereziko kirol ikasketen Goi Mailako Kirol Teknikaria Futboleko Tituluaren egitura eta curriculum arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Aho batez onetsi da.
- 15/2018 Irizpena onetsi da. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen duen uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Irizpena onetsi da: aldeko 15 boto eta abstentzio 1.
- 16/2018 Irizpena onetsi da. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarriko, erdiko eta goiko mailen curriculum

ezartzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoa abenduaren 8ko Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko 8/2013 Lege Organikoak aldatu zuen. Aho batez onetsi da.

- 17/2018 Irizpena onetsi da. Nafarroako Eskola Kontseiluaren Araudiaren Batzordearen proposamenaren gainekoa. Irizpena onetsi da: aldeko 10 boto, aurkako 4 eta 3 abstentzio. Alfredo Hoyuelosek eta Nora Salbotxek boto partikularrak aurkeztu dituzte.
- 18/2018 Irizpena, NHST Batzordearen testuaren gainekoa onetsi da aho batez. Alfredo Hoyuelosek aurkeztutako zuzenketa onartu da.
- Carlos Astrain Goñi Prestakuntza Ataleko arduradunak, "Gaitasun pedagogiko-didaktikoaren gaitasuna hobetzeko programa" aurkeztu du, helarazitako gonbidapena onartuz.
- Lehendakariak 2018ko lehenengo sei hilekoko kontuak aurkeztu ditu eta onetsi dira. 2018ko 39.050 euroko aurrekontutik 21.161,15 euroko gastua egin da, ekainaren 27an 36.731,66 euroko ondarea geratzen delarik.

Osoko bilkurako kide kopurua	Bertaratutakoak	Bertaratutakoen %a
34	19	%55,88

Esan bezala, Nafarroako Eskola Kontseiluaren atari digitalean Osoko bilkuraren saioen akta guztiak kontsultatu daitezke.

4. Batzorde Iraunkorraren Saioak

Ikasturtean zehar 10 saio egin dira. Parte hartzea honako hau izan da:

Kide kopurua	Bertaratutakoen batezbestekoa	Bertaratutakoen %a
9	6,4	62,22

Batzar iraunkorraren saioen aktak nahi duenarentzat eskuragarri daude. Landutako gaiak eta hartutako erabakiak ondoko hauek dira:

2017ko irailaren 13an

- 2017ko ekainaren 14ko saioaren akta onetsi da.
- Batzorde iraunkorraren azken saiotik egindako ekintzen berri ematen duen dokumentua banatu du lehendakariak bertaratutakoen artean.
- Lehendakariak azaldu du Nafarroako Eskola Kontseiluaren XX. Jardunaldien prestakuntza lanak hasi direla. 2016-2017 ikasturteko berrikuntza proiektuei buruz izango dira eta udazkenean burutuko dira. Udaberriko Jardunaldiek, bestalde, Hezkuntza eta espazioa izango dute gai nagusi.
- Lehendakariak 2017-2018 ikasturteko Lan Egitasmoa azaldu du.
- “Nafarroako Landa eremuko eskola” monografiaren egoerari buruz aritu da. Laster inprimategira helaraziko da.
- 2016-2017 ikasturteko Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostenaren egoeraren berri eman du lehendakariak.
- 2016-2017 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren memoriaren zirriborroa bidali dela oroitarazi du lehendakariak. Hurrengo Osoko bilkuran aurkeztuko da.
- Lehendakariak kontuen aurreproiektua aurkeztu du.
- 2017ko irailaren 27ko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

2017ko urriaren 11n

- 2017ko irailaren 13ko saioaren akta onetsi da.
- Batzorde iraunkorraren azken saiotik egindako ekintzen berri ematen duen dokumentua banatu du lehendakariak bertaratutakoen artean.
- Nafarroako Eskola Kontseiluak egindako Nafarroako Landa eremuko eskolari buruzko monografia banatzen du lehendakariak bertaratutakoen artean. Liburuaren aurkezpena 2017ko urriaren 18an izango da.
- Lehendakariak Berrikuntza proiektuei buruzko udazkeneko Jardunaldien berri eman du. “Hezkuntza eta espazioa” Udaberriko Jardunaldiei buruz ere aritu da.
- Lehendakariak azaldu du Estatuko Eskola Kontseiluak mezua helarazi duela Estatuko Eskola Kontseiluaren Parte-hartze Autonomikoko Batzarraren hurrengo bilkurei buruz.
- 14/2017 Irizpenaren gainean Ander Domblásek, Alfredo Hoyuelosek eta Amaia Zubietak aurkeztutako zuzenketak Osoko bilkurara igotzea adostu da bertaratutakoen baiespenez.
- 15/2017 Irizpenaren gainean Alfredo Hoyuelosek aurkeztutako zuzenketak onetsi dira 1. zuzenketa izan ezik. Hau Osoko bilkurara igotzea adostu da.
- 16/2017 Irizpenaren gainean Alfredo Hoyuelosek aurkeztutako zuzenketak Osoko bilkurara igotzea adostu da.
- Memoriaren gaineko zuzenketak onetsi dira 26. zuzenketa izan ezik. Hau Osoko bilkurara igotzea adostu da.
- 2017ko urriaren 25eko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

2017ko azaroaren 2an

- 2017ko azaroaren 2ko Batzar iraunkorraren saioa bertan behera geratu da. Landu beharreko gaiak 2017ko azaroaren 22ko bilkuran landuko dira.

2017ko azaroaren 22an

- 2017ko urriaren 11ko saioaren akta onetsi da.
- Batzorde iraunkorraren azken saiotik egindako ekintzen berri ematen duen dokumentua banatu du lehendakariak bertaratutakoen artean.
- "Nafarroako Landa eremuko eskola" monografiaren berri eman du lehendakariak.
- Lehendakariak eskerrak eman dizkie Berrikuntza proiektuei buruzko Jardunaldietan parte hartu dutenei.
- 17/2017 Irizpenaren ganean hiru zuzenketa aurkeztu direla azaldu du lehendakariak eta Osoko bilkurara eramatea proposatu du. Alfredo Hoyuelosek eta Ignacio Tonik aurkeztu dituzte zuzenketak. Ignacio Tonik boto partikularra aurkeztu du.
- Nafarroako Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkaria berritzeko prozesuaren berri eman du lehendakariak.
- 18/2017 eta 19/2017 Irizpenen ganean ez dela zuzenketarik aurkeztu azaldu du lehendakariak eta Osoko bilkurara eramatea proposatu du.
- NHSTren kapituluaren ganean aurkeztutako zuzenketa berri eman du lehendakariak; zuzenketa guztiak onartu dira eta txostenean erantsiko dira.
- 2017ko abenduaren 20ko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

2017ko abenduaren 11n

- 2017ko azaroaren 22ko saioaren akta onetsi da.
- Batzorde iraunkorraren azken saiotik egindako ekintzen berri ematen duen dokumentua banatu du lehendakariak bertaratutakoen artean.
- Lehendakariak jakinarazi du Idea aldizkariaren edizioarekin abenduaren 7an bukatuko dela.
- Azaroaren 23an burututako Estatuko Eskola Kontseiluaren bileraren berri eman du lehendakariak.
- Lehendakariak Eskola Kontseiluaren 2017ko bigarren sei hilekoko kudeaketa ekonomikoaren zirriborroa banatu du. Hurrengo Osoko bilkuran aurkeztuko da.
- NHSTren gaineko zuzenketa eztabaida egin da. Onetsi gabeko zuzenketak Osoko bilkurara eramatea adostu da.

2018ko urtarrilaren 16an

- 2017ko azaroaren 22ko saioaren akta onetsi da.
- Batzorde iraunkorraren azken saiotik egindako ekintzen berri ematen duen dokumentua banatu du lehendakariak bertaratutakoen artean.
- Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostenaren gaztelaniazko bertsioa Nafarroako Eskola Kontseiluaren atari digitalean eskuragarri dagoela jakinarazi da; euskarazko bertsioa laster egongo da eskuragarri.
- Lehendakariak azaldu du Idea 48. aldizkaria 2017ko abenduaren 26an argitaratu zela webgunean.
- Lehendakariak Nafarroako Parlamentuaren aurrean NHSTren aurkezpena egingo duela jakinarazi da. Agerraldia 2018ko urtarrilaren 24an izango da.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamenduaren araudia gaurkotzeko Araudiaren Batzordearen bileraren berri eman du lehendakariak.
- NHST aztertu eta hobetzeko proposamenak jasotzen dituen dokumentua banatu du lehendakariak.
- Hurrengo Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

2018ko otsailaren 7an

- 2018ko urtarrilaren 7ko saioaren akta onetsi da.
- 2018ko otsailaren 21eko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

2018ko martxoaren 14an

- 2018ko otsailaren 7ko saioaren akta onetsi da.
- Batzorde iraunkorraren azken saiotik egindako ekintzen berri ematen duen dokumentua banatu du lehendakariak bertaratutakoen artean.
- "Hezkuntza eta espazioa" Jardunaldien berri eman du lehendakariak.
- Lehendakariak jakinarazi du Araudiaren Batzordea otsailaren 8an bildu zela eta bileraren berri eman du. Hurrengo bilera 2018ko martxoaren 15ean izango da.
- Lehendakariak NHST Batzordearen bileraren berri eman du. Urtarrilaren 24an izan zen, Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko Txostena aztertu eta hobetzeko.
- 2018ko martxoaren 27ko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

2018ko apirilaren 18an

- 2018ko martxoaren 14ko saioaren akta onetsi da.
- Batzorde iraunkorraren azken saiotik egindako ekintzen berri ematen duen dokumentua banatu du lehendakariak bertaratutakoen artean.
- Lehendakariak Idea aldizkariaren eta monografiaren hurrengo alearen, eta Familien Parte-hartzeari buruzko monografikoaren bigarren zatiaren egoeraren berri eman du.
- NHSTren ebaluazioaren Batzordearen eta Araudiaren Batzordearen lanen egoera azaldu du.
- Hurrengo Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

2018ko maiatzaren 16an

2018ko apirilaren 18ko saioaren akta onetsi da.

Batzorde iraunkorraren azken saiotik egindako ekintzen berri ematen duen dokumentua banatu du lehendakariak bertaratutakoen artean.

Estatuko Eskola Kontseiluko Parte-hartze Autonomikoaren Batzordeak hezkuntza itunari buruz egindako lanen berri eman du lehendakariak.

Lehendakariak Araudiaren Batzordearen eta NHST Batzordearen txostenak aurkeztu ditu.

2018ko ekainaren 13an

2018ko maiatzaren 16ko saioaren akta onetsi da.

Batzorde iraunkorraren azken saiotik egindako ekintzen berri ematen duen dokumentua banatu du lehendakariak bertaratutakoen artean.

Parte-hartze Autonomikoaren Batzordearen bilkuraren berri eman du lehendakariak. Maiatzaren 31n izan zen.

2018 urteko lehenengo seihilekoko kontuen aurkezpena. 2018 urterako zegoen 39.050€ko aurrekontutik 20.962,41€ko gastua egin da. Kudeaketa ekonomikoko kontuan 36.930,40€ daude ekainaren 12an.

Lehendakariak Foru Dekreturako proiektu multzo bat aurkeztu du, 3/2018 Irizpenetik 16/2018 Irizpenera:

- 3/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Ehunezko eta Larruzko Artikuluak Konpontzea Oinarrizko Lanbide Heziketako Tituluaren egitura eta curriculumara arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.

- 4/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Informatika eta Komunikazioak Oinarrizko Lanbide Heziketako Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.
- 5/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Uren Tratamenduak Sare eta Araztegiak Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.
- 6/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Araubide bereziko kirol ikasketen Goi Mailako Kirol Teknikaria Futbolean Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu.
- 7/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Egokitzapen Fisikoko Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.
- 8/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean 3D Animazioetako, Jokoetako eta Ingurune Elkarreragileetako Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.
- 9/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Ingurumen-Hezkuntza eta Kontrolan Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.
- 10/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.
- 11/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Ile-apainketarako Estilismoa eta Zuzendaritza Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.
- 12/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Turismo Gidaritza, Informazioa eta Laguntza Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.
- 13/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Genero Berdintasuna Sustatzeko Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Ignacio Tonik zuzenketak aurkeztu ditu. Irizpena aho batez onetsi da.
- 14/2018 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzako Teknikaria eta Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen dituzten Foru Dekretuak aldatzen dituen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Irizpena aho batez onetsi da.
- 15/2018 Irizpena, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen duen uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa.

- 16/2018 Irizpena, Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarritzko, erdiko eta goiko mailen curriculuma ezartzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoa abenduaren 8ko Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko 8/2013 Lege Organikoak aldatu zuen.

Irizpen guztiak onetsi dira 6/2018 Irizpena izan ezik. 6/2018, 15/2018 eta 16/2018 Irizpenak hurrengo Osoko bilkuran landuko dira. Araudiaren Irizpena eta NHST Irizpenak ere Osoko bilkurara igoko dira.

2018ko ekainaren 27ko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

5. Txostenak

5.1. Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostena, 2016-2017 ikasturtea



Ekainaren lehenengo hamabostaldian Hezkuntza Departamentuari eta beste erakundeei txostena egiteko beharrezko datuen eskaera egin zen. Abuztua, iraila eta urrian zehar datuak bildu ziren.

Urriaren 16an, Osoko bilkurako kideei eta 2. Batzordeari txostenaren 2. kapituluaren zirriborroa aurreratu zitzaion. Urriaren 19an, Osoko bilkurari eta 3. Batzordeari txostenaren 3. kapituluaren zirriborroa helarazi zitzaion zuzenketa-orriarekin batera eta zuzenketak aurkezteko epea abenduaren 7a arte finkatu zen.

Azaroaren 22an, 2016-2017 ikasturteko NHSTren zirriborroaren gainean jasotako hobekuntza eta zuzenketak Batzorde iraunkorrean aztertu eta denak onetsi ziren. Ondoren jasotako zuzenketak abenduaren 11n egindako Batzorde iraunkorrean aztertu ziren eta abenduaren 12an Osoko bilkurara bidali ziren. Zuzenketen zerrenda eta testua Kontseiluko webguneko erregistratuen atalean sartu ziren.

Abenduaren 20ko Osoko bilkuran 2016-2017 ikasturteko Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostena aho batez onetsi zen.

NHSTren kudeaketaren egutegiaren laburpena hau da:

NHST Egutegia	
Lana	Data
Datu eta informazio bilketa eta oinarrizko dokumentuaren lanketa	Irailaren 15a arte
Oinarrizko dokumentuaren banaketa kapitulu bakoitzeko zirriborroak itxi ahala	Azaroaren 2a arte
Lan taldeen bilerak lehen ondorioak lantzeko	Azaroaren 13tik-17ra
Batzorde iraunkorraren bilera 1. zirriborroa berrikusteko	Azaroaren 22a
Zirriborroa Osoko bilkurara helarazi zuzenketak jasotzeko	Azaroaren 23a
Zuzenketak aurkezteko azken eguna	Abenduaren 7a

Zuzenketen azterketa Batzorde iraunkorrean	Abenduaren 11
Osoko bilkurara zuzenketak bidali zuzenketa-orriarekin batera	Abenduaren 12a
Osoko bilkuraren saioa	Abenduaren 20a
Diseinatzaile grafikoari bidalketa	Abenduaren 22a

NHSTren edukia ondoko idazpuru orokorretan sailkatzen da:

1. Sarrera

2. Hezkuntzaren testuingurua

2.1. Alderdi demografikoak

- Biztanleria eta haren osaera
- Hiri- eta landa-eremuetako biztanleria
- Atzerritarrak
- Familia-egitura
- Eskola-adineko biztanleria

2.2. Alderdi sozioekonomikoak

- Barne-produktu gordina
- Sektore ekonomikoak
- Lan-merkatua
- Familien ekonomia
- Hezkuntza eta ekonomia

2.3. Alderdi soziokulturalak

- Ezaugarri orokorrak
- Nafarroako hizkuntzak

2.4. Hezkuntza-alderdiak

- Biztanleria helduaren ikasketa-maila
- Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean
- Hezkuntzaren interesa alor sozialean

3. Hezkuntzako baliabide materialak eta langileak

3.1. Hezkuntzaren finantzaketa publikoa

- Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua
- Konparatzeko datu orokorra

3.2. Baliabide materialak

- Baliabideak 0-3 urteetan
- Ikastetxe publikoak. Araubide orokorreko irakaskuntzak
- Itunpeko ikastetxe pribatuak. Araubide orokorreko irakaskuntzak
- Ikastetxe pribatuak
- Araubide bereziko ikastetxeak
- Zerbitzu osagarriak

3.3. Hezkuntza-arloko langileak

- 0-3 urtekoekin diharduten langileak
- Ikastetxe publikoetako irakasleak
- Itunpeko ikastetxeetako irakasleak
- Ikastetxe pribatuetako irakasleak
- Irakasleei buruzko ezaugarri interesgarriak
- Ratioen bilakaera

4. Hezkuntza-prozesuak eta politikak

- 4.1. Hezkuntza Administrazioaren antolamendua
- 4.2. Eskolako egutegia eta ordutegia
- 4.3. Hezkuntza-sistemetako aurreko ikasketen baliokidetasunak
- 4.4. Irakaskuntzen antolamendua
 - Haur Hezkuntzako lehen zikloa
 - Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
 - Batxilergoa
 - Lanbide Heziketa
 - Arte eta Musika ikasketak
 - Helduen irakaskuntza
 - Kirol ikasketak
- 4.5. Hizkuntzak ikastea
 - Euskara
 - Atzerriko hizkuntzak
- 4.6. Inklusio eta aniztasuna
 - Aniztasunari erantzuteko plana
 - Hezkuntzako ekitatea
- 4.7. Bizikidetzak eta baterako hezkuntza
 - Antolaketa
 - Araudia
 - Helburuak
 - Bizikidetzak eta berdintasuna sustatzeko ekintzak
 - Baterako hezkuntzako plana
 - Departamentuen arteko lankidetzak
- 4.8. Kalitatea eta hobekuntza
 - Eskola-zuzendaritza
 - Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan
 - Irakasleen etengabeko prestakuntza
 - Hezkuntza-berrikuntzako proiektuak

4.9. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia

- Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua
- Konektagarritasuna
- Informatikako ekipamendua
- IKTak curriculumean txertatzea

4.10. Lanbide Heziketaren Plan estrategikoa

4.11. Landa eremuko eskola

- Ezaugarriak
- Etorbizunerako proposamenak

4.12. Udalak eta hezkuntza

4.13. Parte-hartzea

- Nafarroako Eskola Kontseilua
- Ikastetxeetako Eskola Kontseiluak
- Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai sektoriala
- Gurasoen Mahaia
- Ikasleen gurasoen elkarteak eta konfederazioak
- Eskolatze Batzorde Nagusia

4.14. Europar Batasuneko hezkuntza-programak

5. Eskola-sistemaren emaitzak

5.1. Hezkuntza sistemara heltzea

- Eskolatze prozesuaren emaitzak
- Araubide orokorreko ikasketetan eskolaturiko ikasleak
- Araubide bereziko ikasketetan eskolatutako ikasleak
- Arte irakaskuntzako ikasleak

5.2. Progresioa sistema arautuan

- Lehen Hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa
- Unibertsitaterako sarbide-probak

5.3. Errendimendu-emaitzak

- Lehen Hezkuntzako 3. maila
- Lehen Hezkuntzako 4. maila
- Lehen Hezkuntzako 6. maila etapa amaierako ebaluazioa
- IIP programaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 6. mailan
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako etapa amaierako ebaluazioa
- Ikastetxeak eta ISEC

5.4. Hezkuntza sistemaren emaitza konparatiboak

- Egokitasun-tasa
- Errepikapen-tasa
- Eskola-uzte goiztiarraren tasa
- DBHko graduatze-tasa
- Bigarren Hezkuntza bigarren etapako graduatze-tasa

5.5. Sariak eta sari bereziak

1. Eranskina: Nafarroako Parlamentua

2. Eranskina: Nafarroako Arartekoa

3. Eranskina: Komunikabideak

4. Eranskina: Baliabide profesionalak


2018ko urtarrilaren 24an, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakariak txostena aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuaren Hezkuntza Batzordearen aurrean. Prentsa lokalaren ordezkariak gonbidatu eta bertaratu egin ziren. Aurkezpen digitala egin zen eta Nafarroako Eskola Kontseiluko web gunean zintzilikatu zen. Era berean, zenbait hedabidek txostenaren berri eman zuten.

Txostena formatu digitalean argitaratu zen eta 2018ko otsailaren 9an ondoko erakundeei helarazi zen:

- Hezkuntza Departamentua: 64 memoria
- Nafarroako Parlamentua. Hezkuntza Batzordeko kideak: 14 memoria
- Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak: 34 memoria
- Estatuko eta Autonomietako Eskola Kontseiluak: 18 memoria
- Besteak: 82 memoria (Nafarroako Gobernuo lehendakaria, Parlamentuko lehendakaria, Unibertsitateak, Nafarroako Arartekoa, Liburutegiak, Sindikatuak, Gurasoen Elkar-teak, Estatuko Goi Ikuskaritza, etab.)

2016-2017 ikasturteko txostena, baita aurrekoak ere, Kontseiluaren webgunean eskuragarri daude.

5.2. “LANDA EREMUKO ESKOLA” Monografia



Argitalpen honek Landa eremuko eskola gain nagusi izan zuten Nafarroako Eskola Kontseiluko XIX. Jardunaldietan egindako ekarpenak jasotzen ditu. 2017ko apirilaren 7an eta 8an Iruñean egindako Jardunaldiek, hezkuntza komunitatetik eta komunitatera hausnarketak ekartzea bilatu zuten. Helburu nagusietako batzuk landa eremuko eskola definitzea, beste lurraldeetako landa eremuko ereduak ezagutzea, hezkuntza komunitatea eta inguruaren arteko harremana aztertzea edota Nafarroako landa eremuko eskoletan egiten diren esperientzia esanguratsuak partekatzea zen.

Monografiaren lehenengo atalean, landa eremuko eskolen definizioa eta errealitatea garatzea gertu diren erkidegoetan gai nagusi zuten Jardunaldietako sarrerako hitzaldiak biltzen dira. Hizlariak izan ziren Ana Isabel Ayala, Roser Boix Tomàs eta Mikel Goñi.

Ana Isabel Ayala, Aragoiko Hezkuntza Departamentuko Berrikuntza, Ekitate eta Parte Hartzeko Zerbitzu burua, Aragoiren nortasun-ezaugarria den landa eremuko eskolari buruz aritu zen. Landa-eskolak Landa Ikastegi Bateratuen bidez (CRA) egituratzen dira. CRA eskola bakarra da, zenbait udalerritan ikasgelak dituena, hezkuntza-proiektu bakarrarekin, irakasle-talde bakarrarekin eta hezkuntza komunitate bakarrarekin. CRA zentroz gainera, Aragoiko landa-eskolek CRIEak dituzte, hots, Hezkuntza Berrikuntzarako Landa Zentroak. Horiek landa-eskoletako ikasle eta irakasleei udalerrri handietako moduko kalitate eta berrikuntza eskaintzeko helburuarekin jaio ziren.

Roser Boix Tomàsek, Universitat de Barcelonan Hezkuntza Fakultateko Dekanoak, landa-eskola definitu zuen: txikia, herrikoa eta publikoa. Kataluniako hezkuntza-politika lurraldean sustraitutako eskolan oinarritzen da, identitate pedagogiko eta kulturalarekin eta bertan, maisu-maistrak dira herriz herri mugitu behar direnak, eta ez haurrak. Bere iritziz, landa eremuko hezkuntzaren kalitatea ezin da hobetu, ez bada landa eremuko ikerketa sustatzen.

Mikel Goñi Sagastume Euskadiko Eskola Txikien Koordinatzailearentzat landa eremuko eskolak birpentsatzea da hezkuntza munduko egungo erronka. Eskola txikien historia luzea da Euskadin, baina azkeneko 30 urteetan zenbait inflexio puntu egon dira; azkenekoa “Eskola Txikien Paradigma Aldaketa” proposamena. Adin aniztasuna eta txikitasuna dira eskolaren definizioaren oinarrian dauden bi ezaugarri, gaur egun ere. Eskola Txikiak adin aniztasuna bultzatzen duten tamaina txikiko eskolak dira eta bi ezaugarri horien ondorioz, lan on bat egiteko aukera ugari eta anitzak dituzten eskolak dira.

Bigarren atalean, Jardunaldietan aurkeztutako Nafarroako eskolen praktika esanguratsuak azaltzen dira. Hala nola, Arronizko La Balsa Ikastetxe Publikoarena, Etxalarko Landagain eskolarena, Luzaide-Arnegiko ikastetxeena, Sakanako eskola txikiarena eta Uxueko Ikastetxe Publikoarena.

Azken atalean, aditu eta eragile ezberdinekin elkarlanean egindako landa eremuko eskolaren egoeraren ebaluazio zehatza jasotzen duen txostena aurkitu daiteke. Ainara Ayestaran, Josu Etxanobe, Jesús Castiella, Josune Isturiz, Miren Oñate eta Nora Salbotx, besteak beste, hartu dute parte.

Monografiaren aurkezpena 2017ko urriaren 18an egin zen Iruñeko Ezpeleta jauregian.

Liburuaren edukia ondoko hau da:

Aurkezpena

Maria Roncesvalles Solana Arana, Hezkuntzako Kontseilaria

Aitor Etxarte Berezibar, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria

Hitzaldiak

Ana Isabel Ayala Sender

Roser Boix Tomàs

Mikel Goñi Sagastume

Ekarpenak

Cat Supermarket, ingelesezko eta gaztelaniazko proiektua. Arroitzko La Balsa HLHIP. Noelia Echeverría Zalduendo, Leire Zabaleta Asiain, M^a Pilar Pellejero Miró

Etxalar, Landagain eskola: komunitate inklusiboa. Aintzane Ollokiegi Egaña

Arnegi eta Luzaideko eskolen arteko mugazgaidiko proiektua. Luzaideko eta Arnegiko IP eta Arnéguy IP. Sylvie Arrijuria, Peio Beloqui Yaben, Ana Isabel Elizondo Ainciburu, Maite Eyherart, Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara

Sakanako eskola txikiak. Jesús M^a Argote Novales, Lierni Galarraga Lekuona

Cantónimo: harriduratik ikaskuntzara. Esther Leza Ongay

Landa eremuko eskola Nafarroan

Landa eremuko eskola Nafarroan. Ainara Ayestaran, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa. Josu Etxanobe, Landa eremuko eskolen koordinatzailea. Aitor Etxarte, Nafarroako Eskola Kontseilua. Jesús Castiella, Hezkuntza Departamentua. Josune Isturiz, Eskubide Sozialetako lehendakariordetza. Miren Oñate, Hezkuntza Departamentua. Nora Salbotx, irakaslea eta formatzailea.



Cat supermarket, Arróniz




Arnegi eta Lusaide arteko mugazgaidiko proiektua



Sakanako eskola txikiak



Cantónimo, Uxue




Landagain eskola, Etxalar



Landa Eskola. Bilera

5.3. “BERRIKUNTZA PROIEKTUAK 2016-2017” Monografia



Monografia honek 2016-2017 ikasturtean nafar ikastetxeek egindako berrikuntza proiektuak argira ateratzea du helburu. Hauetako batzuk Nafarroako Eskola Kontseiluaren XX. Jardunaldietan aurkeztu ziren.

Jardunaldiak urriaren 23 eta 24an Tuteran burutu ziren eta azaroaren 7, 8 eta 9an Iruñean. Hezkuntza komunitatetik egindako hausnarketak komunitatera zabaltzea zuten helburu nagusi. Beste helburuen artean, berrikuntzetan praktiken aldaketa eta hausnarketaren erlazioa lantzea, Nafarroako hezkuntza sisteman esperientzia esanguratsuak partekatzea, ikerketa taldeen arteko ezagutzak modu iraunkorrean komunikatzeko bideak diseinatzea eta esperientzien ikusgarritasuna gizartera zabaltzea azpimarratuz.

Tuteran eta Iruñean egindako Jardunaldietan, kalitatea eta ekitatearekin loturiko berrikuntzak aurkeztu dira. Hori da zortzi proiektuak estekatzen dituen irizpidea. 2016-2017 ikasturteko Hezkuntza Departamentuaren deialdian 68 proiektu aurkeztu ziren, eta hasierako ebaluazioren ondoren, 50 onartu ziren.

Proiektu hauen komuneko ezaugarri nabarmenenak honakoak dira:

Testuinguruaren eta ikastetxeek daukaten paperaren analisiaren ondorio dira. Hau da, errealitatean txertatuak daude bere konpromiso sozial eta profesionala agertuz.

Maila ezberdinetan hezkuntza komunitatea inplikatzeko dute: familiak, eragile sozial eta kulturak, herri erakundeak.

Irakasleen arteko eta, batzuetan, eragile hezitzaile eta sozialen lankidetzan oinarritutako lanak dira.

Tankera profesional ireki, zorrotz, konprometitu eta sortzaileak agerian dira.

Proiektu guztiek berrikuntza ardatz ezberdinak estekatzen dituzte, elkarketa ezberdinetan: eskola solidarioak, gaitasunarekiko lana, IKTak, diziplinarteko proiektuak, ikaskuntza komunitateak edo curriculo aniztasuna.

Ikastetxeetan lan ikuspegia eta lidergo ahalmena duten zuzendaritzak behar dituzte.

Kemena behar dute, epe luzean, proposamenak hazteko eta sakontzeko.

Ikasleekin eguneroko lanetan berritzaileak dira eta hau funtsezkoa da. Ikuspegi kritikoa bultzatzen dute, eta honek, aldi berean, berritzeko beharra sendotzen du.

Hezkuntza lanaren funtsezko edukiak erreskatatzen ditu. Musikaz, dantzaz, zientziaz, historiaz, solidaritatez, ingurugiroz, beste kulturez edo lan taldeaz hitz egiten dute.

Proposamen errealak dira, egingarriak eta beste ikastetxeetako eredugarriak, bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz.

Beraz, monografia honekin ezagutzera eman nahi dira 2016-2017 ikasturtean Nafarroako ikastetxeek bultzatutako zenbait berrikuntza proiektu eta Hezkuntza Departamentuaren Hezkuntza Berritzeko Proiektuen deialdian aurkeztu zirenak. Hauetako asko Nafarroako Kontseiluaren XX. Jardunaldietan aurkeztu ziren 2017ko urrian eta azaroan, Tuteran eta Iruñean.

Nafarroako 14 ikastetxek jatorri ezberdineko 16 berrikuntza esperientzien azalpena ematen dute: hezkuntza-giroen antolaketa, lankidetzako ikaskuntza eta ikaskuntza-komunitateak, hezkidetzak, musika-terapia, teknologia digitalak, hezkuntza-teknologiak, elkarlan kooperatiboa, berdintasuna hezkuntza-komunitatean, lankidetzak proiektuak, baterako irakaskuntza, natura, hezkuntza afektibo-sexuala edo ikaskuntza eta zerbitzua.

Monografia formatu bikoitzean egin da, euskaraz eta gaztelaniaz.

Liburuaren edukia ondoko hau da:

Aurkezpenak

María Roncesvalles Solana Arana, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaria

Aitor Etxarte Berezibar, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria

Beatriz Agramonte, Nora Iriarte y Maider Urroz, Hezkuntza Departamentuko Prestakuntza Ataleko Berrikuntza Proiektuen Talde Eragilea

Javier Armentia Fructuoso, Iruñeko Planetarioaren zuzendaria

Ekarpenak

Jolas askeko hezkuntza-giroak. Bizipenak eskolan. San Francisco HLHIP, Iruña. Joaquín Escaray Lozano, Pilar Gonzalves Calatayud

Lankidetzako ikaskuntza, ikaskuntza-komunitate batean. Sistematizaziotik instituzionalizaziora. Eskola inklusiboa, parte-hartzailea eta dialogikoa. Doña Mayor HLHIP, Iruña. Maite Etxeberria Ziritza

Gure baratzea. Otsagabiako HLHIP DBHI. Sara García Tolosa

Musika-terapia hezigarria. Musika-terapia ikasgelan, garapena pizteko eta hobetzeko. Amor de Dios ikastetxea, Burlata. Verónica Coello Delgado

Robotak gure munduan. San Miguel HLHIP, Doneztebe. Itziar Irigoien Perurena

Sanfranirratia: hitzak airean. San Francisco HLHIP, Iruña. María Ángeles Azanza

Gailu mugikorren bidezko ikaskuntza. Teresa Bertrán de Lis HLHIP, Cadreita. Inmaculada González Martín, Ismael Hernández Usoz

Ibai bazterreko tximeleta. Askatasuna BHI, Burlata. Iraide Ongay Rodríguez

Berdintasuna ez da bigarren mailakoa. Benjamín de Tudela BHI. María Ester Latorre Lecha

Lata ematen. Diziplina anitzeko proiektua IEHPko ikasleekin. Benjamín de Tudela BHI. Margarita Laspalas Muñoz

LPHE: Laguntza Pertsonalizatuko Hezkuntza Eredua. Baterako irakaskuntza eta proiektukako lankidetzak-lana ikasleen garapenaren zerbitzura. Hijas de Jesús ikastetxea, Iruña. Cristina Asenjo Jiménez, Daniel Sánchez Aguirreolea

Ezagutu zure ibaia. Lumbier IIP LH. Carlos Chavarren Cabrero

Hezkuntza afektibo-sexualeko plana (DBH). Príncipe de Viana HLHIP, Olite-Erriberri. Marqués de Villena BHI, Martzilla. Rubén Crespo Vergara

Errizoma III proiektu sozioedukatiboa: sareko lana eta boluntariotza. Parte hartzea-Lankidetzak-Eraldaketa. Marqués de Villena BHI, Martzilla. José Ramón García Rueda

Elkarlanean aritzea, gure ezaugarria. Sakana LH IIP, Altsasu. Miren Arantza Bengoetxea, Berta de Pablo

Toki Ona: Tren Txikitoren urteurrena. Toki Ona BHI, Bera. Lorena Garciarena Babace

Monografiaren aurkezpena 2018ko otsailaren 1ean egin zen Iruñeko Ezpeleta jauregian.



Robotak gure munduan, Doneztebe-Santesteban



Arkatzak erdira. Doña Mayor, Iruña



Gure baratzea, Otsagabia



Sanfranirratia. San Francisco, Iruña



Askatasuna, Burlata



Musika-terapia. Amor de Dios, Burlata



Hitzak airean. San Francisco, Iruña



Teresa Bertrán de Lis, Cadreita

5.4. “FAMILIEN PARTE-HARTZEA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN. FAKTORE SOZIOEKOMIKO ETA KULTURALEN ERAGINA” Monografia



2018ko maiatzaren 28an Nafarroako Eskola Kontseiluak “Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman” monografiaren bigarren zatiaren aurkezpena egin zuen, Charo Repáraz Abaitua, Ángel Sanz Moreno eta Pedro González Felipe egileekin batera.

Monografia honek familien eta eskolen arteko erlazioaren gaiari heltzen dio, biak anitzak eta konplexuak direlako eta etengabeko aldaketan daudelako. Arazo hauek testuinguru zehatz batean aztertzen ditu: Nafarroan eta gaur egun. Hausnarketa ikerketa esparru zabal honen atal batean ardaztea proposatzen du. Familien ezaugarri sozioekonomikoen eta inplikazioaren arteko lotura aztertzea dute helburu. Familiaren testuinguruan ematen den jarrera positiboaren garrantzia baieztatzen bada, parte-hartzeko modu aktibo hori hezkuntza sistema hobetzeko lerro nagusi izan beharko luke.

Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman. Faktore sozioekonomiko eta kulturalen eragina

Sarrera

Indize Sozioekonomiko eta Kulturalaren (ISEK) deskribapena
Gurasoen Hezkuntza Inplikazioaren Indizearen (GHI) deskribapena

Emaitzak

ISEKen eta ikerketarako faktoreen arteko harremana
ISEK eta eskola errendimendua
ISEK eta familien parte-hartzea Guraso Elkarteetan eta Eskola Kontseiluetan
GHI eta beste aldagaiekin duen harremana
GHI eta eskola errendimendua

Ondorioak

Paperean argitaratutako aleak Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetara banatu ziren. Ekarpenak egin zituzten pertsoneri ere ale bana helarazi zitzairen. Monografiaren formatu digitala Kontseiluko webgunean eskuragarri dago, euskaraz zein gaztelaniaz.



Ángel Sanz Moreno

5.5. “HEZKUNTZA ETA ESPAZIOA 2018” Monografia



Argitalpen honek Nafarroako Eskola Kontseiluaren “Hezkuntza eta espazioa” XXI. Jardunaldietan egindako ekarpenak jasotzen ditu.

2018ko martxoaren 5, 6 eta 7an Nafarroako Museoan egindako Jardunaldien helburuak honako hauek ziren:

Hezkuntza eta espazioaren arteko loturak aztertu.

Hezkuntza espazioen eta kontestuen praktika onen ereduak definitu.

Nafarroako hezkuntza sisteman espazioarekiko eskola esperientzia esanguratsuak partekatu.

Jendarteari intereseko esperientziak jakinarazi.

Hezkuntza eta espazioaren gaia aztertzen hasten garenean ohartzen gara leku bakoitzean etengabe josten diren jarduerak bestelako berri ematen digitela. Eskolaren baitan ezinbestean eta borondatez ematen diren funtzioak historikoki bereizi dira: ikastea/jolastea, lana/aisialdia, mugikortasuna/gelditasuna, isiltasuna/zalaparta, bakardadea/lagunartea. Eta funtzio bakoitzari espazio zehatza egokitzen zaio dikotomiak errepikatuz: eskola ala kalea, gela ala patioa, kanpoa ala barrua.

Gizarteak gero eta gehiago eskatzen du eredu aktiboaren, inklusiboaren eta lankidetzan oinarritutakoen araberako hezkuntza-proiektuak sortzea eta, ondorioz, hezkuntza komunitate, erakunde administratibo eta hezkuntza erakunde askoren agendetan lehentasun bihurtu da.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren “Hezkuntza eta espazioa” Jardunaldiak testuinguru honetan kokatzen dira. Aditu talde zabal baten laguntzarekin hezkuntza komunitate eta komunitatera hausnarketak ekartzea bilatu dute jardunaldiek. Helburu nagusiak izan dira hezkuntza eta espazioen arteko loturak aztertzea, hezkuntza espazioen eta kontestuen praktika onen ereduak definitzea, Nafarroako hezkuntza sisteman espazioarekiko eskola esperientzia esanguratsuak partekatzea eta hurbileko eragileei esperientziak jakinaraztea.

Monografia honek Jardunaldietan egindako ekarpenak jasotzen ditu, hala nola Hezkuntza Kontseilari Maria Roncesvalles Solana Aranaren irekiera, Heike Freireren “Jolastoki biziak. Eskola birnaturalizatzeko aukera” hitzaldia, Clara Eslava arkitektoaren “Habitatzean hezte” hitzaldia edota Ianire de Andrés eta Ula Iruetagoiena arkitektoen “Hezkuntza eta hiriri” buruzko hitzaldia. Horrela, hitzaldi nagusien bidez hiru ardatz landu dira, eta elkar gurutzatzen diren arren, bereizi ditugu: hezkuntza eta natura, hezkuntza eta arkitektura, hezkuntza eta hiria.

Jarraian, Nafarroako hezkuntza sisteman alor honetan burutzen ari diren zenbait esperientzia interesgarri aurkezten dira: Sarrigurengo Hermanas Úriz Pi IP, Iruñeko Mendillorri Haur Eskola, San Francisco IP, Hijas de Jesús ikastetxea, García Galdeano IP, Bernart Etxepare IP eta Mendigoiti IP. Bestelako esparruetatik hiru proiektu zabaldu ziren, hala nola Iruñeko Udalak gauzatuko dituen bi parke publikoak, Zizur Nagusiaren bide seguruak eta Hezkuntza Departamentuaren Etorkizuneko Ikasgelaren proiektua.

Jardunaldietan eta monografia honetan pertsona eta erakunde askoren lana ezinbestekoa izan da. Aurretik aipatutakoez gain, Hezkuntza Departamentuko Azpiegituren Zerbitzua, Prestakuntza Atala, CERMIN, Eunáte, itzultzaileak, Corellako eta Iruñeko Arte Eskoletako ikasleak eta Nafarroako Museoko arduradun eta langileak gogoan ditugu. Guztientzat gure begirune eta esker ona.

Finean, Nafarroako Eskola Kontseiluak zorrotz eta zehatz landu nahi izan du hezkuntza aktibo, inklusibo eta lankidetzakoaren eta hezkuntza-espazioen arteko harremanaren gaia, hau da, eskolak eta beren inguruneak.

Monografia formatu bikoitzean egin da, euskaraz eta gaztelaniaz, ohi bezala.

Liburuaren edukia ondoko hau da:

Aurkezpenak

María Roncesvalles Solana Arana. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Kontseilaria
Aitor Etxarte Bereziar. Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria

Hitzaldiak

Habitatzean hezte. Clara Eslava Cabanellas
Hezkuntza eta hiria. Ianire de Andrés Olabarria, Ula Iruetagoiena Busturia
Jolastoki biziak. Eskola birnaturalizatzeko aukera. Heike Freire Rodríguez

Ekarpenak

Sarrigurengo lorategi tematikoa. Hermanas Úriz Pi HLHIP, Sarriguren. Eva Blanco de Miguel
Auzotik ibiltzeko ideiak. Mendillorriko Haur Eskola. Concha Gaztelu Albero
Gure ingurunea habitatzea. San Francisco HLHIP, Iruña. Haur Hezkuntzako lantaldea
Espazio publikoa haurren erabileran txertatzea: Zizur Nagusiko bi adibide. José Javier Esparza Unsain
Hezkuntza partekatu baterantz murrak suntsituz. Hijas de Jesús ikastetxea, Iruña. Diego Ezcaray Echalecu. Javier Martínez Baigorri
Espazioak habitatzea. García Galdeano HLHIP, Iruña. Miguel Cosme Echeverría
Nafarroako Etorkizuneko Ikasgela. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua. Elena Osés Urteaga
Jolastokia eraberritu. Bernat Etxepare HLHIP, Iruña. Mikel Larraza Arbizu
Askatasun giroak haurren garapenerako. Mendigoiti HLHIP, Iruña. Ane Arribillaga Sagastibeltza
Txantrea Hegoaldea eta Takonera, parkeak birpentsatu. Iruñeko Udala. Mikel Baztán Carrera
Espazioaren eta hezkuntzaren arteko beharrezko intersekzioa. Tximeleta Eskola, Iruña. Carmen Urpí Guercia. Mainer Itoiz Oroz
Eraberritze metodologikoa eta BES ikasgela. San Ignacio ikastetxea, Iruña. Alejandro Rodríguez Vázquez

Ikasgela Inklusiboa proiektua 2016-2017. San Miguel HLHIP, Noain. Félix Jiménez Sánchez Zientziaren berrikuntzatik hezkuntzaren berrikuntzara. Elkarlanean oinarritutako hezkuntzatik, hiri osasungarri eta segurua eraikitzea. RESPIRA proiektua. María Isabel Gómez Jiménez Hautzaroko lurraldeak. Villatuerta. Asier Urrea Ripa

Monografia honen aurkezpena Ezpeleta jauregiko egoitzan egin zen 2018ko ekainaren 25ean.



Ezpeleta jauregia. Bilera



Ezpeleta jauregia. Bilera

Paperean argitaratutako liburuen kopurua 600 ale ingurukoa izaten da eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetara, Hezkuntza Departamentura, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordera, Tokiko Eskola Kontseiluetara banatzen da. Ekarpinak egiten dituzten pertsoneri ere ale bana helarazten zaie. Kontseiluko webgunean ere eskuragarri daude, euskaraz zein gaztelaniaz. Argitalpen hauek José Joaquín Lizaur Ezquietak diseinatutako bilduma jarraitzen dute eta Nafarroako Gobernuako Argitalpen Atalaren laguntzarekin argitaratu dira.



Bideak asmatuz



Mendillorri HE, Iruña



San Miguel, Noáin



"Respira" proiektua, Iruña



Hermanas Úriz Pi, Sarriguren



Bernart Etxepare, Iruña



Tximeleta eskola, Iruña



Jolaslekua Villatuertan




San Francisco eskolako neska-mutilak, Iruña



Erreniaga, Zizur Nagusia



Hijas de Jesús, Iruña



Parke proiektua, Iruña



García Galdeano, Iruña



Etorkizuneko Ikasgela, Hezkuntza Departamentua



San Ignacio, Iruña



Mendigoiti, Iruña

6. Irizpenak

Oroitidazki hau hartzen duen denboran Nafarroako Eskola Kontseiluak emandako irizpenen zerrenda da ondokoa.

Irizpen zenbakia	Izena	Onespen data	NAOn argitalpena
14/2017	Foru Aginduaren proiektua, Abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindua aldatzen duena; haren bidez, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz, Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzaz hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezarri dira.	Osoko bilkura 2017-10-25	240 zenb. 2017-12-18
15/2017	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Eskola-garraioaren zerbitzuaren antolaketa eta haren funtzionamendua, eta eskola-jantokirako banakako laguntzak arautzen dituena.	Osoko bilkura 2017-10-25	223 zenb. 2017-11-20
16/2017	Foru Aginduaren proiektua, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua aldatzen duena; haren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen da eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dira.	Osoko bilkura 2017-10-25	
17/2017	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Pertsona Helduen Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.	Osoko bilkura 2017-12-20	55 zenb. 2018-03-19
18/2017	Foru Aginduaren proiektua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatzeko, hurrengo mailara pasatzeko eta titulazioa lortzeko arauak ematen dituen urtarrilaren 20ko 4/2017 Foru Agindua aldatzen duena.	Osoko bilkura 2017-12-20	29 zenb. 2018-02-09
19/2017	Foru Aginduaren proiektua, Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duen apirilaren 19ko 50/2017 Foru Agindua aldatzen duena.	Osoko bilkura 2017-12-20	29 zenb. 2018-02-09
1/2018	Nafarroako Gobernuaren Akordioaren proiektua, Iruñeko "Iparralde" Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuaren sorrera arautzen duena.	Osoko bilkura 2018-02-21	131 zenb. 2018-07-09

2/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Musikako goi mailako ikasketa artistikoen sarbidea, matrikulazioa eta iraunkortasuna arautzen duen martxoaren 29ko 48/2011 Foru Agindua aldatzen duena.	Osoko bilkura 2017-04-26	130 zenb. 2018-07-06
3/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Ehunezko eta Larruzko Artikuluak Konpontzea Oinarrizko Lanbide Heziketako Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13	
4/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Informatika eta Komunikazioak Oinarrizko Lanbide Heziketako Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13	
5/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Uren Tratamenduak Sare eta Araztegiak Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13	
6/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Araubide bereziko kirol ikasketen Goi Mailako Kirol Teknikaria Futbolean Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen duena.	Osoko bilkura 2018-06-27	
7/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Egokitzapen Fisikoko Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13	
8/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean 3D Animazioetako, Jokoetako eta Ingurune Elkarreragileetako Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13	
9/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Ingurumen-Hezkuntza eta Kontrolan Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13	
10/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13	
11/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Ile-apainketarako Estilismoa eta Zuzendaritza Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13	

12/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Turismo Gidaritza, Informazioa eta Laguntza Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13
13/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Genero Berdintasuna Sustatzeko Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen duena.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13
14/2018	Foru Aginduaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzako Teknikaria eta Goi Mailako Teknikaria Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen dituzten Foru Dekretuak aldatzen dituen.	Batzorde iraunkorra 2018-06-13
15/2018	Foru Aginduaren proiektua, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen duen uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua aldatzen duena.	Osoko bilkura 2018-06-27
16/2018	Foru Aginduaren proiektua, Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarritzko, erdiko eta goiko mailen curriculuma ezartzen duena. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoa abenduaren 8ko Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko 8/2013 Lege Organikoak aldatu zuen.	Osoko bilkura 2018-06-27
17/2018	Nafarroako Eskola Kontseiluaren Araudiaren Batzordea aldatzeko proposamena.	Osoko bilkura 2018-06-27
18/2018	Nafarroako Eskola Kontseiluaren NHST Gidaren proposamena.	Osoko bilkura 2017-10-25

→ Aurkibidea

7. Lan Egitasmoaren Garapena

Nafarroako Eskola Kontseiluko Lan egitasmoan 2017-2018 ikasturterako helburuak eta ekintzak agertzen dira. 2017ko irailaren 13ko Batzorde iraunkorrean aztertua izan zen, hala nola 2017ko irailaren 27ko Osoko bilkuran.



Jarraian, finkatutako lan egitasmoarekiko egindako ekintzak adierazten dira.

1. **Sektore sozial desberdinetako parte-hartzea irakaskuntza ez unibertsitateko programazio orokorrean sustatu.**
 - 1.1. **Hezkuntza Departamentuak egindako proiektu arauemaileak edo ez arauemaileei buruz irizpenak eman, baita hezkuntza ez-unibertsitarioaren programazio orokorrekirekin lotuta.**

24 irizpen landu dira, memoria honen aurreko atalean zerrendatutakoak.
 - 1.2. **Kontseiluaren gaur egungo osaketa aztertu eta, horrela adostuko balitz, aldaketak sustatu intereseko sektore hezigarri berrietako parte-hartzeari bide egiteko.**

Araudia berraztertzeko Batzordeak egindako lanean, Kontseiluan dauden sektoreen ordezkartza zabaltzeko aukera aurkeztu da. Batzorde iraunkorrean zein Osoko bilkuran izan diren eztabaidetan elkarrengandik urruntzen diren iritzia eman dira. Hala, batzordekide batzuk zabaltzearen alde agertu dira, beste batzuk kontra agertu dira eta beste batzuk ez dute zabalkuntza hau beharrezkoa ikusten, egungo ordezkartzak dagoeneko funtzio horiek betetzen dituelako. Osoko bilkuran eztabaidatutako eta onetsitako irizpenak adostutako erabakiak, jasotako proposamenak eta emandako boto partikularrak jasotzen ditu.

1.3. Kontseiluaren funtzionamendua hobetzeko proposamenak egin eta, beharrezkoa izanez gero, oinarrizko aldaketak egin.

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Araudia aldatzeko eta proposamenak egiteko sortutako Batzordeak bilera monografikoak egin zituen otsailaren 8an, martxoaren 14an eta apirilaren 12an. Denboraldi horretan, kide guztien adostasuna lortu zuen araudia aldatzeko proposamena prestatu zen. Hau, 2018ko maiatzaren 16ko Batzorde iraunkorraren saioan aurkeztu zen. Ondoren, ekainaren 27ko Osoko bilkuran landu eta proposamena onestea adostu zen. Proposatutako testua Hezkuntza Departamentura helaraziko da Gobernuak beharrezkoak diren lanak egin ditzan Kontseiluaren araudia eguneratzeko.

2. Nafarroako hezkuntza-sistemaren ezagutza eta hobekuntza bultzatu ikerketen bidez

2.1. 2016/2017 ikasturteko Nafarroako hezkuntza-sistemaren Txostena (NHST) sortu.

Gai hau memoria honen 5.1 atalean islatzen da.

2.2. Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostena ebaluatu eta hobetzeko proposamenak egin, alde funtzionala eta komunikatiboa eraginkorragoa eginez.

Edukia hobetzeko eta Txostena ulergarriagoa egiteko, NHST Batzordea sortu zen, edukiak, adierazpenak eta kudeaketa berrikusteko. Kontseilu kideak ez diren hainbat adituekin elkarlana ordainezina izan da:

- Nerea Álvarez Arruti (Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Plangintza eta Programen Zuzendariorde).
• Juan Ardaiz Astrain (Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemien Zerbitzua).
• Sagrario Arroqui Arandia (Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua)
• Pablo Cebrián Jiménez (Nastat).
• Pilar Mayo Falque (Hezkuntza Departamentuko Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala).
• José M^a Pérez-Agote Aguirre (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia Departamentua).
• Marina Sagaseta López (Nastat).
• Juan M^a Sánchez Prieto (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia Departamentua).

Urtarrilaren 24an, otsailaren 21ean eta martxoaren 21ean Batzordea bildu zen aipatutako adituekin eta proposamen bat aurkeztu zen. Ondoren, ekainaren 13ko Batzorde iraunkorrean aztertu eta ekainaren 27ko Osoko bilkuran onetsi zen. Hurrengo Txostenaren edizioaren gida izango da hau. Txostenak behin eta berriro berrikuste eta hobetzea behar du, eta beraz, Kontseiluaren ohiko eta urteroko lanen barne egongo da hausnarketa hau.

2.3. 2017/2018 ikasturteko Nafarroako hezkuntza-sistemaren Txostena (NHST) prestatu.

Kontseiluak 2018ko ekainerako prestatu zuen datuen eskaera. Era berean, eta ahal zen heinean, lana aurreratu egin zen hainbat epigrafeetan eguneratutako datuekin, uztaila eta abuztuan.

2.4. Nafarroako hezkuntza-sistemaren interes guneak bereziki aztertu zuzeneko eragileekin eta adituekin batera.

“Hezkuntza Berrikuntza Esperientziak” eta “Hezkuntza eta espazioa” gaiak aztertu ditu Kontseiluak aurrean, bereziki. Gai hauen azterketak memoria honetan islatuta daude.

2018ko udazkeneko Jardunaldietarako mintzagai nagusia “Berrikuntza proiektuak 2017-2018” proposatuko da.

Lau argitalpen egin dira, formatu digitaleko Idea aldizkarian eta paperean:

- “Nafarroako Landa eremuko eskola”
- “Berrikuntza proiektuak 2016-2017”
- “Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman (II. Zatia)”
- “Hezkuntza eta espazioa 2018”

Memoria honen 5. puntuan aipatutako ikerketa guztien ekintzen berri aurkitu daiteke.

3. Nafarroako hezkuntza komunitatearekin batera, intereseko hezkuntza-gaien informazioa eta elkar trukatzeko sustatu.

3.1. Kontseiluaren egoitza digitaleko jarduera bultzatu. Era berezian ondoko atalak garatu:

- Kontseiluaren jarduerak
- Hezkuntza munduko proiektu interesgarriak
- Kontseiluaren fitxategi publikoak kontsultarako jarriak
- Interes orokorreko ikerketa dokumentuak
- Pertsona erregistratuentzako atala

3.2. • Ondoko jarduerak antolatu:

3.2.1. “Berrikuntza proiektuak 2016-2017” (Nafarroako Eskola Kontseiluaren XX. Jardunaldiak)

Jardunaldiak urriaren 23 eta 24an Tuterako UNEDen egoitzan eta azaroaren 7, 8 eta 9an Iruñeko Nafarroako Museoaan burutu ziren. Gonbidapenak urrian bidali ziren hezkuntza komunitateari, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeari, Eskola Kontseiluko Osoko bilkurakideei, prentsari, etab.

Programa ondokoa izan zen:

- Iruñeko San Francisco IPren “Jolas askeko hezkuntza-giroak”, Otsagabia IP-BHIren “Gure baratzea”, Hijas de Jesús ikastetxearen “Laguntza Pertsonalizatuko Hezkuntza Eredua”, Lumbier IIP LHren “Ezagutu zure ibaia”, Doneztebeko San Miguel IPren “Robotak gure munduan”, Askatasuna BHIren “Ibai bazterreko tximeleta”, Marqués de Villena BHI eta Príncipe de Viana IPren “Hezkuntza afektibo-sexualeko plana” eta azkenik, Doña Mayor IPren “Lankidetzako ikaskuntza, ikaskuntza-komunitate batean”.
- Iruñeko Jardunaldietan irekiera hitzaldia Javier Amentia Fructuoso, Iruñeko Planetarioko zuzendariaren eskutik izan zen.

Ondoko elkarlana egon zen:

- Kartela eta programaren diseinu grafikoa: Noelia Azagra (Corellako Arte Eskolako ikaslea).
- Hizlariekin elkarrizketak eta argazki erreportajea: Erik Aldaz Alonso eta Iranzu Oyaga (Iruñeko Arte Eskolako ikasleak).



María Solana, Hezkuntza Kontseilaria



Roberto Pérez, Aitor Etxarte



Javier Armentia, Iruñeko Planetarioa



CP Doña Mayor, Iruña



CIP Lumbier



Askatasuna BHI, Burlata



CP San Miguel IP, Doneztebe



CP-IES Otsagabia IP-BHI



IES Marqués de Villena, Marcilla



CP San Francisco IP, Iruña



CP Príncipe de Viana, Olite



Colegio Hijas de Jesús, Iruña

3.2.2. "Hezkuntza eta espazioa 2018" (Nafarroako Eskola Kontseiluko XXI. Jardunaldiak)

Jardunaldiak martxoaren 5,6 eta 7an burutu ziren Iruñeko Nafarroako Museoan eta Nafarroako Hezkuntza Kontseiluaren egoitza den Ezpeleta jauregian.

Gonbidapenak otsailean bidali ziren hezkuntza komunitateari, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeari, Eskola Kontseiluko Osoko bilkurakideei, prentsari, etab.

Jardunaldien egitaraua hau izan da:

- Martxoaren 5a. Jarduerak goizez
Hizlari nagusiekin eta talde eragileko kideekin elkarrizketa.



Martxoaren 5a. Bilerak

- Martxoaren 5a. Saio irekia
Mahai nagusia: María Roncesvalles Solana, Hezkuntza Kontseilaria
Aitor Etxarte, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria
Hitzlaria: Heike Freire. Haurtzaroen eta hezkuntza berrikuntzetan aditua.
Gai nagusia: Hezkuntza eta natura
Jolasleku biziak: eskola naturalizatzeko aukera
Solosaldua: praktiken aurkezpenak
Hermanas Úriz Pi IP, Sarriguren
Mendillorri HE, Iruña
S. Francisco IP, Iruña
Zizur Nagusia eta haurtzarora
- Martxoaren 6a. Saio irekia
Mahai nagusia: Eneko Ardaiz, Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua
Hitzlaria: Clara Eslava, arkitektoa, hezkuntzan aditua
Gai nagusia: Hezkuntza eta arkitektura
Haurtzaroren "lekua" / "Lekuaren" zentzua
Hezten gaituzten lekuak habitatu
Habitatzen ditugun lekuak hezi
Solosaldua: praktiken aurkezpenak
Hijas de Jesús, Iruña
García Galdeano IP, Iruña

Etorkizuneko gela (Hezkuntza Departamentua)

- Martxoaren 7a. Saio irekia

Mahai nagusia: Aitor Lacasta, Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua

Hizlariak: Ianire de Andrés, arkitektoa, hiritartasuna eta haurren parte-hartzean aditua. Ula Iruretagoiena, arkitektoa eta EHUKo irakaslea

Gai nagusia: Hezkuntza eta hiria

Hezkuntza eta espazio publikoak

Eskola eta hiria / auzoaren ekologia kulturala

Eskolaren hezkuntza ekipamendua hirian

Solasaldia: praktiken aurkezpenak

Bernat Etxepare IP, Iruña

Mendigoiti IP, Iruña

Hiri proiektu berriak, Iruña

- Martxoaren 12tik 16ra. Online galdetegia

Izena eman duten pertsona guztiei helarazi zen ondoko edukiarekin:

Sarrera: Galdetegi honetan hurrengo gaiei buruzko hausnarketa zure ikuspuntu konkretutik (ama, hezitzailea, arkitektoa...) egitea eskatzen dizugu. Zer egiten da edo zer egin daiteke:

- 1. Ideia: Natura eskolaren parte da. Eskola-edukietan. Eskola-espazioetan (ikasgelak, jolastokia, liburutegia, jantokia...).
- 2. Ideia: Eskola-espazio guztiak hezkuntzaren espazio dira. Ikasgelak ez diren eraikinaren barruko espazioak (jantokia, liburutegia, korridoreak, komunak...). Eraikinaren kanpoko espazioak (jolaslekua, baratza...).
- 3. Ideia: Eskola (espazio eta jardueretan) inklusiboagoa eta parte-hartzaileagoa izan daiteke. Eskola pertsona guztien inklusiotik eta inklusiorako izan daiteke (ezagutzak, trebetasunak eta interes desberdinak). Eskola partaidetzatik eta partaidetzarako izan daiteke (demokrazia, bizikidetasuna, berdintasuna).
- 4. Ideia: Hezkuntza komunitatea eskolaren subjektua da. Harremanak beste ikasleekin hezkuntza espazioetan (adin eta gela ezberdinak). Familien parte-hartzea hezkuntza espazioetan (ikasgeletan, beste espazioetan).
- 5. Ideia: Auzoa edo herria heziketarako espazioa da. Tokiko eragileekin (ekonomikoak, kulturalak, elkarteak, kirola...) lotura. Tokikoak ez diren beste eragileekin (ikastetxe edo erakundeekin lankidetzak) lotura.

- Ikastetxeetara bisitaldiak: martxoaren 12tik 23ra, izena emateko epea NEKen webgunean

Jardunaldi hauek ekarritako berritasun bat, esperientziak aurkeztu dituzten ikastetxeetara bisitaldiak egiteko aukera izan da. Horretarako interesa zuen edonori irekitako bisitaldi-egutegia proposatu da:

- Apirilaren 11n Hermanas Úriz Pi IP, Sarriguren. CP Bernat Etxepare IP, Iruña. Zizur Nagusia, Udaletxea
- Apirilaren 18an: S. Francisco IP, Iruña. S. Miguel IP, Noain. S. Ignacio, Iruña
- Apirilaren 25ean: Mendigoiti IP, Iruña. Hijas de Jesús, Iruña. García Galdeano IP, Iruña

Ondoko elkarlana egon zen:

- Kartela eta programaren diseinu grafikoa: Verónica Vallejo Sesma (Corellako Arte Eskolako ikaslea)
- Hizlariekin elkarrizketak eta argazki erreportajea: Erik Aldaz y Jokin Aranzueque (Iruñeko Arte Eskolako ikasleak)



María Solana



Aitor Etxarte



Heike Freire



Eva Blanco - Hermanas Úriz Pi



Miguel Cosme- García Galdeano



Diego Ezcaray - Hijas de Jesús



Concha Gaztelu – Mendillorri HE



Javier Esparza - Zizur Nagusia



Eneko Ardaiz



Anne Arribillaga – Mendigoiti



Xabier Nuin – Bernat Etxepare



Elena Osés – Etorbizuneko gela



Pilar Gonzalves – San Francisco



Clara Eslava



Mikel Baztán



Aitor Lacasta



Ianire de Andrés



Ula Iruretagoiena



Jardunaldiak. Martxoaren 7a . Nafarroako Museoa

3.2.3. “Kontseiluaren arratsaldeak” Nafarroako Parlamentuarekin elkarlanean

“Nafarroako Eskola Kontseiluaren arratsaldeak” programaren barnean, Marta Román Rivasek *Haurtzaroa eta hiria* hitzaldia eskaini zuen maiatzaren 22an Nafarroako Parlamentuan. Ainhoa Aznárez Igarza Parlamentuko lehendakariak eta Pablo Azcona Molinet NUKFko lehendakariak hitzaldian parte hartu zuten.

Marta Román geografoak eta haur mugikortasuneko proiektuetan adituak, hiriko espazioa haurrentzat berreskuratzearen alde egiten du, haurrak hazi, jolastu eta elkarbizitzen ikasteko habitat baten alde. Espazio publikoaz birjabetzeko modu bat eskolarako bideak dira, haurrek egunero egiten dituzten ibilbideak oinez zein bizikletan egiteko aukera ematen die eta helduen laguntzarik gabe.



Kartelaren diseinua egiteko Verónica Vallejo Sesma Corellako Arte Eskolako ikaslearekin elkarlana egon zen.



Marta Román, Ainhoa Aznárez, Aitor Etxarte, Pablo Azkona



Marta Román

3.3. Idea aldizkari digitala finkatu

Aldizkari digitalak bere formatua finkatu du ikasturte honetan. Pantaila mota ezberdinetan irakurketa eroso eta garbia lortzen duen egitura digitalaren forma bilatu da.

3.3.1. Idea 48



48. zenbakian, 2017ko abenduan argitaratua, “Berrikuntza proiektuak 2016-2017”, ondo-ko artikulua argitaratu ziren:

Aurkezpenak:

- María Roncesvalles Solana Arana, Hezkuntza Kontseilaria
- Aitor Etxarte Berezibar, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria

Ekarpenak:

- Jolas askeko hezkuntza-giroak. Bizipenak eskolan. San Francisco HLHIP, Iruña. Joaquín Escaray Lozano, Pilar Gonzalves Calatayud
- Lankidetzako ikaskuntza, ikaskuntza-komunitate batean. Sistematizaziotik instituzionalizaziora. Eskola inklusiboa, parte-hartzailea eta dialogikoa. Doña Mayor HLHIP, Iruña. Maite Etxeberria Ziritza
- Gure baratzea. Otsagabiako HLHIP DBHI. Sara García Tolosa
- Musika-terapia hezigarria. Musika-terapia ikasgelan, garapena pizteko eta hobetzeko. Amor de Dios ikastetxea, Burlata. Verónica Coello Delgado
- Robotak gure munduan. San Miguel HLHIP, Doneztebe. Itziar Irigoien Perurena
- Sanfranirratia: hitzak airean. San Francisco HLHIP, Iruña. María Ángeles Azanza
- Gailu mugikorren bidezko ikaskuntza. Teresa Bertrán de Lis HLHIP, Cadreita. Inmaculada González Martín, Ismael Hernández Usoz
- Ibai bazterreko tximeleta. Askatasuna BHI, Burlata. Iraide Ongay Rodríguez
- Berdintasuna ez da bigarren mailakoa. Benjamín de Tudela BHI. María Ester Latorre Lecha
- Lata ematen. Diziplina anitzeko proiektua IEHPko ikasleekin. Benjamín de Tudela BHI. Margarita Laspalas Muñoz
- LPHE: Laguntza Pertsonalizatuko Hezkuntza Eredua. Baterako irakaskuntza eta proiektukako lankidetzeta-lana ikasleen garapenaren zerbitzura. Hijas de Jesús ikastetxea, Iruña. Cristina Asenjo Jiménez, Daniel Sánchez Aguirreolea
- Ezagutu zure ibaia. Lumbier IIP LH. Carlos Chavarren Cabrero

- Hezkuntza afektibo-sexualeko plana (DBH). Príncipe de Viana HLHIP, Olite-Erriberri. Marqués de Villena BHI, Martzilla. Rubén Crespo Vergara
- Errizoma III proiektu sozioedukatiboa: sareko lana eta boluntariotza. Parte hartzea-Lankidetzeta-Eraldaketa. Marqués de Villena BHI, Martzilla. José Ramón García Rueda
- Elkarlanean aritzea, gure ezaugarria. Sakana LH IIP, Altsasu. Miren Arantza Bengoetxea, Berta de Pablo
- Toki Ona: Tren Txikitoren urteurrena. Toki Ona BHI, Bera. Lorena Garciarena Babace

3.3.2. Idea 49



49. zenbakian, 2018ko apirilean argitaratua, “Hezkuntza eta espazioa 2018”, ondoko artikulua argitaratu ziren:

Aurkezpena:

- María Roncesvalles Solana, Hezkuntza Kontseilaria
- Aitor Etxarte Berezibar, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria

Hitzaldiak:

- Habitatzean heztea. Clara Eslava Cabanellas
- Hezkuntza eta hiria. Ianire de Andrés Olabarria, Ula Iruretagoiena Busturia
- Jolastoki biziak. Eskola birnaturalizatzeko aukera. Heike Freire Rodríguez

Ekarpenak:

- Sarrigurengo lorategi tematikoa. Hermanas Úriz Pi HLHIP, Sarriguren. Eva Blanco de Miguel
- Auzotik ibiltzeko ideiak. Mendillorriko Haur Eskola. Concha Gaztelu Albero
- Gure ingurunea habitatzea. San Francisco HLHIP, Iruña. Haur Hezkuntzako lantaldea
- Espazio publikoa haurren erabileran txertatzea: Zizur Nagusiko bi adibide. José Javier Esparza Unsain
- Hezkuntza partekatu baterantz murrak suntsituz. Hijas de Jesús ikastetxea, Iruña. Diego Ezcaray Echalecu. Javier Martínez Baigorri
- Espazioak habitatzea. García Galdeano HLHIP, Iruña. Miguel Cosme Echeverría
- Nafarroako Etorkizuneko Ikasgela. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Elena Osés Urteaga
- Jolastokia eraberritu. Bernat Etxepare HLHIP, Iruña. Mikel Larraza Arbizu
- Askatasun giroak haurren garapenerako. Medigoiti HLHIP, Iruña. Ane Arribillaga Sagastibeltza
- Txantrea Hegoaldea eta Takonera, parkeak birpentsatu. Iruñeko Udala. Mikel Baztán Carrera
- Espazioaren eta hezkuntzaren arteko beharrezko intersektzioa. Tximeleta Eskola, Iruña. Carmen Urpí Guercia. Mainer Itoiz Oroz
- Eraberritze metodologikoa eta BES ikasgela. San Ignacio ikastetxea, Iruña. Alejandro Rodríguez Vázquez

- Ikasgela Inklusiboa proiektua 2016-2017. San Miguel HLHIP, Noain. Félix Jiménez Sánchez
- Zientziaren berrikuntzatik hezkuntzaren berrikuntzara. Elkarlanean oinarritutako hezkuntzatik, hiri osasungarri eta segurua eraikitzea. RESPIRA proiektua. María Isabel Gómez Jiménez
- Haurtzaroko lurraldeak. Villatuerta. Asier Urrea Ripa
- I. Eranskina: Bukaerako galdetegia
- II. Eranskina: Webgrafia

Aldizkari digitalaren zenbaki guztiak eskuragarri daude webgunean.

3.4. Kontseiluak garatutako gai monografikoak paperean editatu, dagoen bildumaren formatua jarraituz.

Gai hau memoriaren 5. atalean islatzen da.

3.5. Nafarroako Eskola Kontseiluak eta beste erakundeek egindako txostenak hedatu.

Memoria honen 5. atalean Kontseiluak egindako argitalpenen prestakuntza prozesuaren eta hedapenaren zehaztasunak daude: monografia eta argitalpen digitalak, Jardunaldien artxibo digitalak, NHST edo Memoriak. Dokumentu hauek guztiak Nafarroako Eskola Kontseiluaren webgunean eskuragarri daude.

Gure webgunean Estatuko Eskola Kontseiluaren esteka dago bere informazioak eta argitalpenak ikusteko. Era berean, bestelako esteka interesgarriak ere topatu ditzakegu: Eurydice, erakunde laguntzaileak, etab.

- Nafarroako hezkuntza Sistemaren Txostena 2016/2017
- Nafarroako Eskola Kontseiluko 2016/2017 ikasturteko Memoria
- Estatuko eta Erkidegoetako hezkuntza sistemen urteko txostenak
- Estatuko eta Autonomietako Kontseiluen Topaketak
- Nazioarteko erakundeen txostenak

3.6. Artxibo dokumentala eta legegilea eguneratu eta edonoren kontsulta erraztu.

Kontseiluaren fitxategi fisiko eta digitalak osatu eta ordenatu egin dira, eta kontsulta eta deskarga ahalbidetu da, atari digitalean.

Estatuko eta Autonomietako Eskola Kontseilu edota beste erakundeengandik (Unibertsitate, Ikastetxe, Eurydice, etab.) jasotako argitalpenen aleekin fitxategi orokorra eguneratu egin da.

Bestalde, bertako prentsan argitaratutako hezkuntza gaiko informazioak fitxategian gorde dira. Gauza bera egin da hezkuntza argitalpenek ateratako garrantzizko artikuluekin. Kotsultagarri daude artikulua hauek, Kontseilura eskakizuna eginda.

4. Nafarroako Eskola Kontseiluaren agerpen instituzionala gizartean indartu eta hezkuntza eremuko zentro eta erakundeekin harremana bultzatu.

4.1. Komunikabideetan agerpen aktiboa eta erregularra mantendu.

Lehendakariak egindako ekintza eta agerpen nagusiak Memoria honen 10. puntuan zerrendatzen dira.

4.2. Eskola Kontseiluaren jarduerak atari digitalaren bidez editatu eta zabaldu.

Kontseiluak antolatutako jardueren hedapena webgune, prentsa-ohar eta nabarmendutako asteko berriaren bidalketaren bidez egiten da. Ikasturte honetan Kontseiluaren atari digitalaren jarduera altua izan da. Kontseiluaren berezko jardueri lehentasuna eman zaie.

Egun artxibo dokumentala kontsultatu eta deskargatzeko aukera dago webguneko intereseko edukien ataletik: Kontseiluaren aurkezpena eta osaketa, eginkizunak eta eskumenak, azken urtetako NHSTak, Kontseiluaren Memoriak, Idea aldizkariaren zenbaki guztiak, burututako Jardunaldien berriak, argitaratutako monografiaren edizio digitalak, Osoko bilkuraren saioen aktak, onetsitako Irizpenak eta Kontseiluaren kudeaketa ekonomikoari buruzko informazioa. Bestalde, Eskola Kontseilua bera hainbat alditan izan da gai nagusi komunikabideetan.

Berrien atalean Nafarroako ikastetxeen hezkuntza esperientzia berritzaileak eta interes orokorreko erreferentzia teorikoak zein praktikoak argitaratu dira.

Bestalde, webguneko erregistratuen atalak Kontseiluko kideen artean dokumentuen trukaketa eta kudeaketa erraza ahalbidetzen du.

Memoria honen eranskinetan atari digitalari buruzko zehaztasun gehiago ikus daitezke.

4.3. Interes orokorreko hezkuntzako esperientziak ikusgai egin, diren baliabideak erabiliz.

Esan bezala, Kontseiluak garatutako jarduera iraunkorra da hau. Honek, Nafarroako talde, ikastetxe edota gizarte erakunde ugariekin ezagutza eta elkarlana ahalbidetu du.

4.4. Hezkuntza eremuko eragile eta erakundeek antolatutako jardueretara agertu.

Hezkuntza eremuko erakundeek antolatutako ekintzetan era aktiboan parte-hartzen du lehendakariak. II. Eranskinean hauetako batzuk zehazten dira.

4.5. Beste erakundeekin egindako hitzarmenak bete.

Hitzarmenei buruzko zenbait berri interesgarri:

4.5.1. Nafarroako Parlamentua, 2015eko azaroaren 5ean sinatutako protokoloa.

Hitzarmen honen helburua, hezkuntza komunitatearen topaketak eta parte-hartzearen Kontseiluaren ekintza propioak bultzatzea eta erraztea da. Bereziki, "Nafarroako Eskola Kontseiluaren arratsaldeak" antolatzen eta burutzen.

4.5.2. Corellako Arte Eskola, 2011ko urriaren 7an sinatutako protokoloa.

Corellako Arte Eskolarekin elkarlana ondoko jardueretan gauzatu da:

- Nafarroako Eskola Kontseiluaren XX. Jardunaldien kartela, banner, Idea 48 zenbakiaren eta "Berrikuntza proiektuak 2016-2017" monografiaren azalaren diseinua. Egilea: Noelia Azagra.
- 2016-2017 ikasturteko Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostenaren eta 2016-2017 Kontseiluaren Memoriaren azalen diseinua. Egilea: Noelia Azagra.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXI. Jardunaldien kartela, banner, Idea 49 zenbakiaren eta "Hezkuntza eta espazioa 2018" monografiaren azalaren diseinua. Egilea: Verónica Vallejo Sesma.
- 2017-2018 ikasturteko Nafarroako hezkuntza sistemaren Txostenaren eta 2017-2018 Kontseiluaren Memoriaren azalen diseinua. Egilea: Cristian Aparicio.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXII. Jardunaldien kartela, banner, Idea 50 zenbakiaren eta "Berrikuntza proiektuak 2017-2018" monografiaren azalaren diseinua. Egilea: Cristina Baigorri.

4.5.3. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2017ko azaroaren 6an sinatutako hitzarmena.

Ikasturte honetan azpimarratzekoa da:

- Soziologiako Departamentuarekin elkarlana, José María Pérez-Agote Aguirre eta Juan María Sánchez Prietoren bitartez, NHST aldatu eta eguneratzeko.
- Soziologia Aplikatutako graduko ikasleen praktika curricularrak. Ikasleak Cristina Osés Zudaire eta Mattias Johansen Bergman izan dira. 2018ko otsailaren 22an “Praktiketan dauden ikasleak trebatzeko berariazko hitzarmena” sinatu zen. XXI. Jardunaldien “Hezkuntza eta espazioa” gaia hizpide hartuta, ikasleek hezkuntza-espazioen erabilera neurtzeko adierazleak landu zituzten. Tutorea José María Pérez Agote izan zen.
- Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak, Miguel Rodríguez Wilhelmi eta Alfredo Hoyuelos Pinilloren bitartez, hainbat jardueretan parte-hartu dute.
- NUPeko Gizarte Kontseiluak antolatutako hainbat saioetan parte-hartzea: Bigarren Hezkuntzako irakasletzan Unibertsitate Masterraren balorazioa (2018-02-06).
- NUPeko Gizarte eta Enpresa Foroan parte-hartzea.
- NUPeko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen zuzendarien elkarteko eta NUPeko lanbide-elkarteko saioetan parte-hartzea. (2018-02-20).

4.5.4. 2015eko urriaren 8an Iruñeko Arte Eskolarekin elkarlan hitzarmena sinatu zen.

Erakunde honekin egindako elkarlana ondoko jardueretan gauzatu zen:

- Erik Aldaz Alonso eta Iranzu Oyaga Romanzado argazkigintzako 2. mailako ikasleek, Eskola Kontseiluko “Berrikuntza-proiektuak 2016-2017” XX. Jardunaldien argazkiak egin zituzten.
- Erik Aldaz Alonso eta Jokin Aranzueque argazkigintzako ikasleek, Eskola Kontseiluko “Hezkuntza eta espazio 2018” XXI. Jardunaldien argazkiak egin zituzten.

4.5.5. 2017ko ekainaren 1ean Iruñeko Planetarioarekin elkarlan hitzarmena sinatu zen.

Ikasturte honetan intereseko gaiei buruzko informazio trukaketa egin da.

4.5.6. Nafarroako Unibertsitatearekin eta “María Ana Sanz Ikastetxe Bateratuarekin ez da jarduera zehatzik burutu ikasturte honetan.

4.6. Intereseko beste erakunde batzuei kolaborazio hitzarmenak proposatu: Nafarroako Gazteriaren Kontseilua, Elhuyar Fundazioa.

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko ordezkariekin bilerak egin dira, ez ordea Elhuyar Fundazioarekin.

5. Hezkuntza sistema hobetzeko asmoz Estatuko eta Autonomietako Eskola Kontseiluekin elkarlanean aritu.

5.1. Estatuko Eskola Kontseiluko Plenoan eta Parte-hartzeko Batzorde Autonomikoan parte hartu.

Memoriaren 9. atalean jaso da.

5.2. Estatuko eta Autonomietako Kontseiluek antolatzen dituzten Topaketetan parte hartu.

Ikasturte honetan ez da Autonomien eta Estatuaren Eskola Kontseiluen Topaketarik burutu. Parte-hartze Autonomikoaren Batzordearen lanak hezkuntza itunean ardatzu dira.

5.3. Estatuko Eskola Kontseiluarekin eta Eskola Kontseilu Autonomikoekin informazioa trukatu eta lana egin.

Hainbat Kontseiluen lankidetzak egon da denen interesekoak diren gaien lanketan: hezkuntza-ituna, Eskola Kontseiluen funtzionamendua, ikerketa-ildoak edo hezkuntzako gai monografikoak, etxerako lanen gaia besteak beste.

6. Eskola Kontseiluaren baliabideak egoki kudeatu, bere funtzioak modu egokian garatu ahal izateko, eta kudeaketaz arduratu.

6.1. Kontseiluaren aurrekontua kudeatu, gastua errentagarri egin eta haren sei hileko egoeraren berri eman, bai Batzorde iraunkorrari baita Osoko Bilkurari ere.

Kudeaketa kontuko sei hilekoko aurrekontu eta balantzeak aurkeztu eta onetsi dira dagokien Batzar iraunkorrean zein Osoko Bilkuran ere. Hauek, Kontseiluaren webguneko kontuen atalean ikus daitezke.

Memoria honen 12. puntuan jaso da.

6.2. Kontseiluaren langileriaren formazioa bultzatu, dagozkien funtzioen kudeaketa hobetzeko.

Bere garaian Kontseiluaren webguneko kudeaketa lortzeko formakuntza berezia egin zen. Ondoren, ikastaroa eman zuen Eduardo Larequi Garcíari esker, sortu diren zalantza guztiak era arinean argitu dira.

7. Nafarroako berezko bi hizkuntzak erabili posibleak diren eremu guztietan.

7.1. Gaztelaniaz edo euskaraz egiten diren eskaera instituzionalak eta pribatuak erantzun.

2015eko irailetik aurrera zerbitzu hau eskaini egin da euskalduna den administratibo bat gehitu delako.

7.2. Erabilera elebiduna bultzatu Kontseiluaren jardueretan, komunikazioetan eta ekoizpenean.

Kontseiluaren komunikazioetan (deialdiak, emailak, etab.), baita landutako testuetan ere, helburu hau bete da: Hezkuntza sistemaren urteko Txostena, ikasturteko Memoria, Idea aldizkariak, monografiak edo bilkuren aktak gaztelaniaz eta euskaraz daude eskuragarri. Kontseiluaren Jardunaldietan ere hitzaldiak eta komunikazioak euskaraz eskaintzen dira aldebereko itzulpenarekin.

8. Kontseilua sarean

